

NOS MUEVE  
**BIZKAIA**  
BAT EGINIK

---

2019 - 2023  
**HAUTESKUNDE PROGRAMA**

EAJ-PNV.EUS





## › AURKIBIDEA

---

›1	GURE BIZKAIK BADU ETORKIZUNIK	4. OR
›2	HIRU APUSTU GARAI GOGOANGARRI BATERAKO, BIZKAIKO HIRUGARREN IRAULTZARAKO	5. OR
›3	HAMAR IDEIA ITXAROPENTSU 10EKO BIZKAIARENTZAT	8. OR
›4	PERTSONAK	10. OR
›5	EKONOMIA-JARDUERA ETA ENPLEGUA	16. OR
›6	MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA	24. OR
›7	KULTURA	26. OR
›8	KIROLA	28. OR
›9	EUSKARA	30. OR
›10	INGURUMENA ETA LEHEN SEKTOREA	32. OR
›11	OGASUNA ETA FINANTZAK	35. OR
›12	BIZKAI DIGITALA, ABANGOARDIAKO ESTRATEGIA ZERBITZU PUBLIKOETAN	38. OR

## › GURE BIZKAIK BADU ETORKIZUNIK

Hauteskunde-programa guztiak hitzez beteta daude. EAJ-PNVren programa ere hitzez beteta dago, baina alde ederra dago: geure hitza bete egin dugu. Pertsona arruntak gara, berbako pertsonak, langileak, indartsuak, arazoei aurre egiten diegunak, fidatzekoak. Bizikalitateak bermatzen gaitu, enpleguaren hobekuntzak bermatzen gaitu, egoitzek eta eguneko zentroek bermatzen gaituzte, Metroak bermatzen gaitu, Bizkaibussek bermatzen gaitu, geure errepideek bermatzen gaituzte, laguntza publikoen kontrolak bermatzen gaitu, eskola-kirolak bermatzen gaitu, egonkortasunak bermatzen gaitu, Guggenheimek bermatzen gaitu, ilusioak bermatzen gaitu. Orain dela hamar urte baino hobeto egoteak bermatzen gaitu. Bizkai zoragarri honek, non oso ondo bizi garen Bizkai honek bermatzen gaitu. Eta berme horrekin Bizkaiaren defendatzaile eta babesleak gara berak Europako abangoardia ekonomiko eta sozialan jarrai dezan.

Gure Bizkaiak badu etorkizunik. Ilusioa erreibindikatzeko dugu. Gaurko egunak badu itxaropenik, badu baikortasunik, badu kolorerik. Gaurko eguna biharkoa da. Guk badugu Bizkaiarentzat etorkizuneko proposamenik.

Etorkizun hobea, guztiontzako etorkizuna, etorkizuneko Bizkaia. Bizkai horretan norbera bizi izateko eta elkarrekin bizi izateko modu berria izango dugu, hirigintza berria, mugitzeko modu berria, lan egiteko modu berria, lurraldea zaintzeko eta ingurumena errespetatzeko modu berria. Bizkai horren proiektua beterik dago proiektuez, ilusioez eta datozen urteetarako elkarrekin partekatuko ditugun erronkez.

Garai berria amesten dugu Bizkaiarentzat: lurralde honen hirugarren iraultza. Meatzeek eta siderurgiak XIX. mendea errotik aldatu zuten ekonomia, gizarte eta kulturaren arloetan. Guggenheim Museoa izan zen bigarren aldaketa osoaren eta sakonaren ardatza. Proiektu honek batu egiten ditu Bizkaia guztiok amesten dugun etorkizunean jartzeko ezinbestekoak diren elementu guztiak. Hitza bete egin dugu, Bizkaia orain dela lau urte baino hobeto daukagu, eta hori guztia normaltasun osoz egin dugu; horregatik, aurreko guztiak bermatzen gaitu erronka kolektibo horren buru izan gaituzen, eta erronka horretan guztiok gara ezinbestekoak. Baita zu zeu ere.




## HIRU APUSTU GARAI GOGOANGARRI BATERAKO, » BIZKAIKO HIRUGARREN IRAULTZARAKO

Guk hauxe nahi dugu: Bizkaiak egunean-egunean funtzionatzen jarraitzea, eta Bizkaia moderno, berde eta batua izatea; aberastasun inklusiboa izan behar du, inor atzean gelditu barik, eta enplegu egonkor eta kalitatekoa izan behar du. Guk geu garenetik hazi nahi dugu, gu garenaz harro gaudelako. Ez dugu aldatu nahi, hobetu nahi dugu. Itsasadar gara, itsasertz ikusgarri gara, eta berde, natura eta bizi-kalitate gara. Horixe da Bizkaia. Eta hori izan behar dugu bihar ere, baina gaur baino hobetotxoago. Ziur gaudelako Bizkaiak funtzionatzen jarraituko duela EAJ-PNV buruan dela, hiru proiektu handi planteatzen ditugu hobetzeko, eta hiru proiektu horiek Bizkaiko espazio fisiko eta sozial handi horiei dagozkie. Eta horietako bakoitzean modu integralean hartuko dugu esku (ekonomia, enplegua, mugikortasuna, kultura, aisia, kirola...), zertarako eta gaur egun hemen bizi garenon eta bihar-etzi biziko direnen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

1-ITSASADARRA BIZKAIKO ETORBIDE NAGUSIA IZANGO DA

2-BIZKAIKO ITSASERTZA EUROPAKO BADIA BIHURTUKO DUGU

3-BIZKAI BERDEAGOA NAHI DUGU BIZI-KALITATEA HOBETZEKO



## 1-ITSASADARRA BIZKAIKO ETORBIDE NAGUSIA IZANGO DA

Itsasadarra Bizkaiko aldaketa sozial, ekonomiko eta kultural handien ardatza izan da. Itsasadarrak ere bai lurraldeko hirugarren iraultzaren protagonista izan behar du. Bilboko hiria biziberritzeko, bere burua berriro asmatzeko eredia arrakasta-eredua da, eta berriro jarraitu behar zaio eredu horri itsasadar osoan zehar, bai pasealeku berriak egiteko, bai mugitzeko modu berriak sortzeko, ekonomia- eta merkataritza-jardueren zona berriak egiteko, kulturaren, ezagutzaren, aisiaren, kirolaren, etxebizitza berezien... epizentro berriak sortzeko. Proiektu hau proiektuez beteta dago, ibilbide luzekoa da, hamarkada batzuetarako, ona da Bizkaiarentzat eta ona da itsasadarretik eta Ibaizabaldeko hur dauden herrietako bakoitzarentzat: Durangotik, Zornotzatik, Galdakaotik, Basauritik edo Bilbotik Getxoraino, Barakaldon, Santurtzin, Portugaleten, Sestaon edo Leioan barrena. Bihur dezagun itsasadarra aukeren etorbide, etorkizuneko harrotasun. Eta egin dezagun hori handitara, Guggenheim Museoa babestu eta bera laguntzen duten eraikin bereziekin, bera Bizkaiaren ikono eta nazioarteko enbaxadore den gisa. Lurralderik onenak onenak behar ditu. Hauexek dira proiektu nagusiak:

- Tunela itsasadarraren azpian, Artatza eta Sestaoren artean.
- Supersurren bigarren fasea, AP-68rekin lotzeko.
- Ezkerraldeko eta Meatzealdeko parke teknologikoa.
- Mugikortasun berria lurraldearentzat:
  - Metroa Galdakaora eta Usansoloko ospitalera.
  - Metroa Bilboko hegoaldeko auzoetara.
  - Herrien arteko bidegorrien plana.
    - Zornotza-Durango bidegorria.
    - Ugao-Arrigorriaga bidegorria.
    - Basauri-Bilbo bidegorria.
    - Ezkerraldeko bidegorria.
    - Eskuinaldeko bidegorria.
- Hondatutako guneak berriro ondo ipintzea, eta ekonomia, merkataritza, kirola, aisia, laguntza, hezkuntza eta etxebizitza berezietarako zona berriak sortzea.

## 2-BIZKAIKO ITSASERTZA EUROPAKO BADIA BIHURTUKO DUGU

Bizkaia itsasadarra eta itsasertza da. Bizkaiko badia gara, Europako badia gara. Itsasertz ikusgarria dugu, eta bera agerian jarri nahi dugu eta besteekin partekatu. Itsasoak lurralde honetako orografia zizelkatu du, bai eta hango pertsonen nortasuna ere: irekiak, esploratzaileak, besteekin harremanetan daudenak, geldiezinak... Kresala dabil gure zainetan zehar. Bizkaiaren ADNren zati da. Altxor hori aitortu eta indartu nahi dugu; itsasertzari itzuli nahi diogu berak eman eta ematen digun guztia, batez ere haren patxada, haren zeruertza, haren betiko laguntasuna.

Aukera bat eta proiektu partekatua sortuko ditugu Bizkaiko itsasertz guztiarentzat: Muskiztik Ondarroaraino. Itsasertzean zehar ibiltzea lurraldearen historian zehar ibiltzea da, bizkaitar guztien nortasunean zehar ibiltzea da: Bizkaiko Zubia, meatzeen herentzia, arrantza, portua, surfa, gastronomia, bela, Urdaibai, hondartzak, baleak, postalak, itsaslabarretan gora dauden herriak, urpeko historia... Eta itsasertzaren epizentro bat, gotorleku bat, gune berezi bat sentitu nahi duten milaka pertsona ekartzen dituen eta lekurik bisitatuenerako bat bihurtu dena: Gaztegunetako Doniene. Itsasertza aukera bat da itsasertz berarentzat eta Bizkai osoarentzat ere bai. Hauexek dira proiektu nagusiak:

- Gaztelugatxeko Doniene hobetu eta bultzatzeko obrak.
  - Pasealeku berdea Bermeo, Matxitxako, Doniene eta Bakioren artean, itsasertzetik joanaz.
  - Autobusetarako aparkalekuak Eneperi aldean eta Matxitxako lurmuturrean, eta haietara errazago heltzeko hobekuntzak.
  - Eraikin berezia, bisitariarentzat erreferentzia-zentroa izan dadin; berean informaziogune bat, bainuak, denda... izango dira.
- Bermeoko portua biziberritzeko proiektua.
- Bilboko portua sendotuko dugu, lurraldeko motor ekonomikoetako bat izan dadin.
- Bizkaiko labar-artearen museoa Lekeitio –Lea-Artibain–.
- GR-123 bidezidorra ondo ipiniko dugu, Bizkaiko itsasertza oinez egiteko.
- Lemoizko antzinako zentrala lurraldearentzat berreskuratuko dugu.

- Portu bakoitzak eta kasko historiko bakoitzak dituzten aukerak aztertuko ditugu.
- Itsasertza lurraldearen gainerako herriekin hobeto lotuko dugu.


-Proiektu pilotua; tren, Bizkaibus eta bizikleta konbinatuz mugitzeko.

-Espainiar Gobernuari presioa sartzen jarraituko dugu, Europar Batasuneko funtsak lor ditzan Sollubeko tunelak eraikitze aldera.

-Lea-Artibaira sartzeko errepidea hobetzeko egin behar diren obren bigarren fasea.

### 3-BIZKAI BERDEAGOA NAHI DUGU BIZIKALITATEA HOBETZEKO

Bizkaia berdea da. Eta berdeagoa izan dadila nahi dugu. Hori lortzeko, Bizkaiaren ikuspegi berdea behar dugu. EAJ-PNVrentzat, ingurumena zaintzeak hauxe esan nahi du: bizi-kalitate handiagoa izatea, hobeto bizitzea, bai eta Bizkai hobea uztea belaunaldi berrientzat. Ikuspegi berri bat aurkezten dugu mugikortasunerako; benetan egiten dugu apustu, tren izan dadin lurraldea hezuramitzten duen garraio-modua; Europari begiratzen diogu, eta bizikleta ere bai izango da herrietan eta herritik herrira mugitzeko modua, eta abarka sakatuko dugu, oinez ibiltzea, mugitzeko modurik ekologikoena, osasuntsuena eta jasangarriena baita.



Konfiantza osoa dugu geure merkatarengan, geure baserritarrengan eta geure arrantzaleengan, bai eta zero kilometroko, kalitateko eta konfiantzako produktuen kontsumoan ere. Adi-adi begira gaude sumatzen diren aldaketa energetikoei; ikerketa eta praktikatik energia garbiak sustatuko ditugu, bai eta auto elektrikoa bezalako paradigma berriak ere. Eta konpromiso sendoa dugu erreferente izaten irauteko hondakinen tratamenduan, bai eta naturaguneak, mendiak eta hondartzak zaintzen ere. Berdeguneak zaindu behar ditugu, eurok Bizkaia bihurtzen dutelako lurralde ikusgarri. Hauexek dira proiektu nagusiak:

- *Herri txiki, aukera handi.* Programa honen bidez bultzatu nahi dugu Bizkaiko herri txiki guztiak zerbitzu publiko berdinetara sartu ahal izatea: sozialak, mugikortasunekoak, aisiakoak, kulturakoak, kirolekoak eta Internetera sartzekoak. Bizkaian bakarrik daude eta bakarrik egon behar dute lehen mailako pertsonak eta herriek.
- *iBai*, sortuko dugu: plataforma komun bakarra izango da lurraldeko herrietako merkataritzari laguntzeko Internet bidezko salmentarako duen erronkan.
- Tokian tokiko merkataritzaren akademia bultzatuko dugu, zertarako eta Bizkaiko profesionalen prestakuntza eta gaitasunak hobetzeko.
- *“Ondopasa-guneak”*: familiek, umeek eta gazteek neguan zehar erabili ahal izango dituzte BEC, Landako eta gainerako eskualdeetan egokiak diren beste espazio batzuk.
- *Ezagutu Bizkaia* barru-turismoko kanpaina: Bizkaiko gizarte osoarentzat izango da, eta beraren helburua izango da lurraldean zehar mugitzea eta lurraldeak dituen altxorak ezagutzea.
- Herrien arteko bidegorrien sarea: beraren bidez sustatuko da modu jasangarriagoan eta osasuntsuagoan mugitzea.
- Ekimenak, gure baserritarren, abeltzainen eta arrantzaleen produktuei eta KMO kontsumoari laguntzeko.
- Eskualdeetako ekonomia-jardueren zona eragileak mantendu eta indartuko ditugu; horri begira, ekimen bereziak bultzatuko dira beharrezan bakoitzeko.

# 10 IDEIA ITXAROPENTSU

## 10eko BIZKAIARENTZAT

- 1** | Bizkaiko boluntarioen sarea, *Bizkaia Gara*, antolatu eta saktuko dugu, beharizanean dauden pertsoneri eta egoerei laguntzeko.
- 2** | Bizkaiko bide nagusietako auto-ilaren aurka borrokatuko gara; horretarako, tunel batek Leioa eta Sestao lotuko ditu, eta Arrontegiri alternatiba bat eskainiko dio; eta Supersurren bigarren fasea egingo da.
- 3** | Eskualdeetan arreta integraleko zentroak sustatuko dugu, zertarako eta hurbiltasuna eta eraginkortasuna errazteko laguntza behar duten bizkaitar guztiei arreta ematerakoan; helburu horri begira, proiektu pilotu berritzailea zabalduko da Getxon.
- 4** | Bilbon Bizkaia dorrea piztuko dugu; dorre hori etorkizuneko enpresa berrien "lantegia" eta adimen artifizialaren ardatza izango da.
- 5** | Teknologia berriak aplikatuko ditugu, iruzurrari erabateko kolpea emateko, eta herritarrentzako zerbitzua hobetuko dugu.



- 6** | Zaintzailearen Estatutua garatuko dugu, beste pertsona batzuk zaintzen dituztenak zaintzeko, bai zaintzaileen onarpena bultzatuz, bai kotizazio bat, atsedeen hartzeko programak, prestakuntza eta laguntza teknologikoak bermatuz.
  
- 7** | Ezkerraldeko eta Meatzealdeko parke teknologikoa eraikiko dugu; berean *Energy Intelligence Center* kokatuko da; zentro hori aitzindaria izango da enpresa energetikoak berritzeko; 60 milioiko inbertsioa egingo da; 50 enpresa ezarriko dira, eta 2.000 lanpostu sortuko dira; hori guztia hala izango da zentroa abiada osoan dabilenean.
  
- 8** | Bizkaiko deskarbonizazioa eta lurralde berdeagoa bultzatuko dugu; horretarako, sare elektrikoen gaineko ikerketako zentro aurreratu bat izango da.
  
- 9** | Lurraldean mugikortasuna hobetzeko eta mugikortasun hori jasangarriagoa eta eraginkorragoa izateko, Bizkaiko udalekin elkarlanean planak eta ekintzak egiteko analisia egingo dugu.
  
- 10** | Zorrotzaurren *Nagusi Intelligence Center* sortzea; zentro hori erreferentea izango da Bizkaiko ikerketan eta prestakuntzan; horrela, biztanleen zahartzea industria, ekonomia eta enplegurako aukera izango da lurraldearentzat.

## › PERTSONAK

Bizkaian pertsonak dira garrantzitsuenak, eta pertsona guztiak dira garrantzitsuak. EAJ-PNV proiektu kolektibo baten bermea da; proiektu horrek pertsona guztien beharrizan eta ilusioei erantzuten die, eta bera da arreta emateko eredu baten bermea, izan ere, eredu horrek Bizkaia Europako abangoardia sozialean eta bizikalitateko abangoardian jarri du. Erronka beti hobetzea da. Mundua eta gizartea aldatzen dira eta Bizkaia aldatzen jarraitu behar du, eta horrek esan nahi du aurrera egin behar dugula eta beharrizan sozial berriei aurrea hartu behar diegula. Bizkaiko eredu soziala eredu biza da, eredu berritzailea, eta atzean gelditzen ez dena, inor atzeratuta geldi ez dadin. Guztiontzako eredu da, orain beharrizan gehien dutenei eta haien familiei laguntzeko, bai eta bihar-etzi beharra izan dezaketenei lasaitasun eta segurtasuna emateko ere. Bizkaiko eredu soziala guztiontzat da eta guztiona da; gizarte osoaren inplikazioa behar du, bai eta haren zaintza eta babesa ere; horrela, eredu horrek eredu orekatu eta irisgarria izaten iraungo du, batez ere behar gehien dutenentzat.

Eredu sozial jakin baten alde egiten dugu; eredu horrek pertsonengan jartzen du arreta, nor bere bizitzan egin nahi duen proiektua egin ahal izan dezan. Gazteen talentua indartu, atxiki eta ekarri nahi dugu, eta enplegu duin, egonkor eta kalitatekoa errebindikatzen dugu. Nahi dugu Bizkaian mendekotasunen bat duten pertsonak aukera izatea euren bizitza egoitza batean edo etxean egin ahal izateko edo beren inguruan dauden zerbitzu guztiak erabili ahal izateko. Legegintzaldi honetan lan egingo dugu zerbitzua hobetzen jarraitzeko; horri begira, adin guztientzako arreta integraleko zentroak ezarriko dira eskualdeetan, eta horren helburua izango da zerbitzu hurbilago, efikazago eta eraginkorragoa eskaintzea, pertsonak euren inguruan bizi izaten iraun ahal izateko.

Eredu moldatu behar dugu adinekoen bizi-kalitatea bermatzen jarraitzeko; zahartze aktibo eta osasuntsua EAJ-PNVren lehentasuna da. Eta *Silver Economy*, zilar-ekonomia, aukera bat da; horrek Bizkaia aurrera ematen dio ateak zabaltzeko adinekoen bizi-kalitatearen arabera diseinatutako edo moldatutako industriaren, produktuen eta zerbitzuen arlo batera: bizitza independentera, non teknologiak eragin esanguratsua duen muga funtzionalak gainditzeko, eta irisgarritasuna edo zaintzak hobetzeko. Nagusi Intelligence Center, Zorrotzaurren, erreferentziako zentroa izango da etorkizunerako estrategia giltzarri den prestakuntza eta ikerketarako.

Bizi-proiektu guztiek dute euren lekua Bizkaian. Bizi-proiektu guztiak garatu behar dira Bizkaian, eta horretarako jarraituko dugu lanean, pertsona guztiek izan ditzaten aukera berberak. EAJ-PNVk jarraituko du arreta berezia jartzen kolektiborik ahulenei, gaitasun faltak dituztenei, baztertzeko egoeran daudenei, adingabeei eta tratu txarrak jasaten dituzten andrazkoei. Mekanismoak indartuko ditugu, egoerarik txarrenetan ere bai, euren bizimodua moztuta ikusi duten pertsona guztiei laguntza emateko, euren bizimodu hori berreskuratze aldera, eta horrela Bizkaia euren ilusioa eta euren ametsak ematen jarrai dezaten. Izan ere, Bizkaia guztion artean egiten dugu.

### SARE INDARTSU BAT GIZARTEAREN ZERBITZUPEAN

Gure ustez, pertsona bakoitzaren patua gure gizartearen patuarekin lotuta dago, eta alderantziz. Eta guztion artean mantendu eta eutsi behar diogu gizarte-sare indartsu, eraginkor eta jasangarri bati, eta sare horrek beharra duenaren zerbitzupuan egon behar du, Bizkaia zerbitzupuan.

Hauexek dira gure proposamenak:

- › *Bizkaia Gara* boluntarioen sarea sortu eta sustatuko dugu, beharrezkoak diren egoeretan laguntza emateko.
- › Daborduko badauden boluntarioen sareak eta laguntza-sareak laguntzen eta sustatzen jarraituko dugu.
- › Tokian tokiko dinamikak sustatuko ditugu, zaintzaileak gaitzeko: erkidego zaintzaileak.
- › Lurralde osora Zaintzaileen Estatutua sendotu eta zabalduko dugu; horretarako, honelako alderdiak landuko dira: aurreikuspen soziala, hobekuntza teknologikoak, atsedenaldiak, prestakuntza eta informazio-sistemak.
- › Erakundeetatik kanpo ematen diren babesei laguntza emateko zerbitzuak sortuko ditugu.
- › Programa jakin batzuk sustatuko ditugu; beraien bidez sare pertsonal informalak eraiki edo bererreraikiko dira babesik gabeko egoeretatik edo bazterketa-egoeretatik datozen pertsonekin.
- › *Gazte saregileak* programa bultzatuko dugu gazteei

laguntzeko gazte-sare gisa; sare horretan, aholkulari moduan parte hartuko dute lurraldeko agente ekonomikoek, sozialek eta hezkuntzakoek.

- › Lankidetzeta publiko-soziala sendotuko dugu, eta elkarrizketa eta gizarte-ekintzako hirugarren sektorea sustatuko ditugu.

## PERTSONA BAKOITZA, PROIEKTU BAKARRA

Pertsona bakoitza Bizkaian errepikaezina da, Bizkaiarentzat bete behar duen zeregin bakarra du; horrela egiten ez badu, berak uzten duen hutsunea ezin da bete. Gure ustez, egoera sorrarazi behar dugu, pertsona guztiek ahal duten guztia eman dezaten. Horrelaxe, eta horrelaxe bakarrik, garatzen da gure lurraldeak ahal duen guztia. Hori guztion arteko konpromisoa da: konpromiso pertsonala, nork bere bizi-proiektua garatu ahal izan dezan, eta kolektiboa, gure lurraldea eraberritzeko konpromisoa.

Hauexek dira gure proposamenak:

- › Aurrera jarraituko dugu, desgaitasunen bat duten pertsonak ahalduentzeko, bizitza autonomo eta independentea gara dezaten aukera berdinekin.
- › Bultzada emango dugu administrazioan irisgarritasun unibertsalaren irizpidea eta klausula sozialen irizpidea sartzeko.
- › Oztopoak kenduko ditugu, bai aukera-berdintasuna bermatzeko, bai irisgarritasun unibertsala bermatzeko bizi-garapen osorako giltzarri diren arloetan (prestakuntza, hezkuntza, kultura, enplegua edo etxebizitza).



- › Ereduak bultzatuko ditugu bizimodu independentari laguntza emateko; horrela saihestu behar da desgaitasunen bat duten pertsonak erakundeen mendean jartzea.
- › Teknologia berrien erabilera sustatuko dugu helburu honi begira: desgaitasunen bat duten edo mendekotasunen batean dauden pertsonak ez bakartzea edo ez mugatzea herritarrek parte hartzen dutenean.
- › Desgaitasun intelektualen bat duten pertsonak errazago lan egingo dute enplegu publikoan; horretarako, administrazio integratzaile eta gaitzailea sustatuko da.

## ARRETA JASANGARRI ETA KALITATEKOA

Bizkaian gizarte-zerbitzuak guztiontzat daude; horiek erabiltzen ditugunok bizimodu duina izaten dugu; berriak erabiltzen ez ditugunoi, berriz, lasaitasuna ematen digute eurok gure esku daudelako bizitzaren edozein egoeraren aurrean. Zerbitzu-sare hori zaindu behar dugu, haiek hobetu behar ditugu eta haiek ondo erabiltzen direla bermatu behar dugu; hiru jardun-lerrook ezinbestekoak dira guztiontzako segurtasun- eta lasaitasun-sare hori eraikitzen jarraitzeko. Hauexek dira gure proiektuak:

- › Eskualdeetan arreta integraleko zentroak sustatuko ditugu; zentro horiek hurbiltasuna eta eraginkortasuna eman behar dizkiote laguntza behar duten bizkaitar guztientzako arretan, edozein dela haien adina edo haien arazoa.
- › Egoitza-zentroen sarea garatu eta espezializatuko dugu pertsonari begirako sare aurreratu gisa; sare horrek erantzuna eman behar die konplexutasun handiko egoerei, betiere egoerok etxean konponetzea zaila denean.
- › Aurrerapenak egingo ditugu zentroa diruz ordaindu ahal izateko eta zentroa aukeratzeko, adinekoaren eta familiaren beharrez eta lehentasunen arabera.
- › Aurrerapenak egingo ditugu kudeaketa eta arreta bikainak izan daitezen: pertsonarengan eta pertsonarekin errotutako arreta sistema; sistema etikoa, desgaitasuna duten pertsonentzako eta pertsona nagusientzako zentroen sareetan arreta emateko.
- › Informazio-sistema integratua sustatuko dugu, gizarte-zerbitzuen zentroen eskaintzari buruz.

- › Formula eta teknologia berriak sartuko ditugu zerbitzuen eraginkortasuna hobetzeko, bai garraioa optimizatuz, bai zaintzarako teknologia sartuz edo telezerbitzuak probatuz.
- › Osasun-sistemarekin izan beharreko koordinazioa eta komunikazioa bultzatuko ditugu helburu hau lortzeko: arreta soziosanitarioaren eraginkortasunean aurrera egitea, betiere baliabideak sistema batetik bestera pasatzeko trantsizioetan arreta berezia jarri.

## PREBENTZIOA, GEHIAGO ETA HOBETO BIZI IZATEKO

Egoerarik konplexuenek ahalegin handia behar dute bai zailak direlako eta bai baliabideak behar direlako. Hala ere, bizi-kalitatea ere aurreko egoera batzuetan dago, horietan oraindik denbora dagoelako eta hobeto bizi izateko jardun daitekeelako. Prebentzioak eta autonomia pertsonalaren sustapenak ohartarazten digute jakin dezagun gure oraingo ohitura eta jardunak erabakigarriagoak direla genetika baino etorkizunean izango dugun bizimoduari begira. Horregatik, kontu hauek giltzarri dira gehiago eta hobeto bizitzeko: prestakuntza eta autogestioa gaixotasunean edo desgaitasunean; azterna edo alertak goiz antzematea, eta autonomia sustatzea lehenengo aztarnak ageri direnean.

Hauexek dira gure proposamenak:

- › Erkidegoan sartzeko programak garatuko ditugu, zertarako eta gaitasun funtzionalak eta harremanetarako gaitasunak berreskuratu, zaindu eta sustatzeko, eta bakartasuna saihesteko.
- › Bizkaiko adinekoen zahartze aktiboa sustatuko dugu herritarren erakundeekin, boluntarioen erakundeekin, administrazio publikoekin eta baita enpresekin ere, horrela horiek guztiek Bizkaiko bizitzaren eremu guztietan protagonista izaten jarrai dezaten.
- › Sistema hauek garatuko ditugu: aurreikustekoak, ereduak identifikatzekoak eta gizarte-zerbitzuei *Big Data* erabiliz alertak ematekoak (erabaki eraginkor eta bizkorak hartu behar dira, datuak oinarri hartuz).
- › Ondokoak sustatuko ditugu: prestakuntza, nor bere burua zaintzea eta ahalduzkoa mendekotasunerako, bai pertsona autonomoei dagokienez, bai zaintzaileei dagokienez, bai mendekotasun-arriskuan edo mendekotasunean daudenei dagokienez.
- › Teknologia berrien erabilera sustatuko dugu, zertarako eta pertsona ahulak edo bakarrik bizi direnak isolatu ez daitezten.
- › Etxeari eman beharreko erantzunak garatu eta zabalduko ditugu; horri begira, teknologiak erabiliko dira zertarako eta jarduteko mugak, isolamendua edo parte hartzeko dauden murrizketak konpentsatu eta arintzeko.

## OREKA GIZARTE BATU BATENTZAT

Bizkaian, gizarte aurreratu gehienetan legez, al-daketa demografiko esanguratsua gertatzen ari da, bai bizi-itxaropena luzatzeagatik, bai jaiotza-tasak txikitzeagatik eta bai migrazio-fenomenoak gertatzeagatik. Inguru berri honetan, behar besteko ausardia izan behar dugu gaur egungo gizarte-kohesioari eusten dioten oinarriak bilakazteko, kohesio horri eusteko eta ongizate-maila handiagoak lortzeko. Adinekoen, gazteen eta migratzaileen belaunaldi berriek, lan egin nahi badute Bizkai hobea eraikitzeko, gure egunotako eta gure etorkizuneko agente giltzarriak izan behar dute. Hauexek dira gure proposamenak:

- › Proiektu pilotu eraberritzailea, zentro berria Getxon izango duena, eta egoitza bat elkargune bihurtu nahi duena; izan ere, leku horretan adin ezberdinetako pertsonak biziko dira elkarrekin, guztiek elkarri eragiteko eta euren bizi-proiektuak gune komun horretan garatzeko. Ekimen hau erabat aitzindaria da Bizkaian, Euskadin eta estatuan.
- › Belaunaldien arteko topaguneak sustatuko ditugu; topaguneok bide emango dute ezagutza transmititzeko, zeinetan esperientziadun adinekoek begirale-lanak egingo baitituzte lurraldeko gazteekin eta lagun egingo baitiete gazteoi.
- › Bizkaiko adinekoak aktibatuko ditugu (boluntario-tzan, lanean, agente herritar gisa...), zertarako eta lurraldeko bizimoduko eremu guztietan agenteak izan daitezten.
- › Borrokan egingo dugu estereotipo sozial hauen aurka: adinekoak, desgaitasuna edo aniztasun funtzional, sexual, etniko, kultural edo arraziala duten pertsonak; horren helburua izango da oztupoak kentzea pertsona horiek ahal duten guztia eman ahal izan dezaten.



- › Inklusio-programak edo birkualifikazio-programak lotuko ditugu itzuli behar diren bekekin.
- › Mekanismo berriak sortuko ditugu agente ekonomikoak inplikatzeko inklusio soziolaboraleko eta belaualdien arteko txandakatzeko estrategietan.
- › Laguntza ematen jarraituko dugu gure gazteek lana aurki dezaten praktiketako programen bitartez.
- › Familiar esku hartzeko programa sendotuko dugu seme-alabengandik gurasoenganako indarkeriari dagokionez, indarkeriazkoa ez den harreman-eredua errazteko.
- › Umeen sexu-abusuan espezializatuta dagoen programa sendotuko dugu; horren helburua izango da adingabeengan ahalik gutxien izatea sexu-askatasunaren aurkako delituetan eragindako kalteak.
- › Koordinazioa indartuko dugu udal-zerbitzuekin eta hezkuntza-zerbitzuekin, zertarako eta babeska falta duten adingabeak antzeman, balioetsi eta haiei arreta emateko.
- › Adoptatuak eta haien familiak laguntzeko programak bultzatuko ditugu, bereziki adopzio ondorengo laguntza, haur adoptatuaren bizitza etapa kritikoetarako prestakuntza, eta hezkuntza, osasun, aisialdia... arloko eragileen sentiberatzean jardungo dugu.

## INBERTSIOA UMEENGAN ETA FAMILIETAN

Ekintza batzuk pertsonen bizitzako une jakin batean bakarrik egin daitezke. Bizitzaren lehenengo urteetan bereziki sentiberak gara kanpotik heltzen diren baldintza eta estimuluekin. Inguru soziofamiliar harmonikoa edukitzea garrantzitsua da pertsonak geroago gara daitezten. EAJ-PNVn badakigu familiak, euren luze-zabalean, inguru hori direla, eta berean eratu egiten dira, hasieran, bizitzako proiektuak. Gure ahaleginaren helburuak hauexek izango dira: familia horiei laguntza ematea edo inguru horiek erakitzea. Hauexek dira gure proposamenak:

- › Estalpeko "ondopasa-guneak" bultzatuko ditugu familientzat, umeentzat eta gazteentzat, neguko hilabeteetan zehar, esparru hauetan: BECen, Landakon edo Bizkaiko eskualdeetan dauden antzeko guneetan.
- › Inbertsio soziala egingo dugu hasierako adinetan eta haien familietan, zertarako eta aukera-berdintasuna eta ugalkortasuna sustatzeko.
- › Ordutegien malgutasuna eta arrazionalizazioa bultzatuko ditugu, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa uztartzeko.
- › Familia-harrera sustatu eta indartuko dugu, hala familia zabalean, nola inorenean; harrera espezializatuko programa ere bai garatuko dugu, harrera bera indartzeko.

- › Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa indartuko dugu, udal-zerbitzuekin eta hezkuntza-sistemarekin koordinatuta; horren helburua izango da absentismo-tasak eta eskolatu gabeen tasak murriztea. Prestakuntza-programak bultzatuko ditugu hezkuntza araututik kanpo dauden nerabeentzat.
- › Babeska falta duten adingabeei lagun egiteko programak sendotuko ditugu, zertarako eta bizi-proiektu oso eta arrakastatsua eraiki ahal izan dezaten.
- › Ekintza sozioedukatiiboak indartuko ditugu adingabeak dituzten familia ahalei begira.
- › Adingabea interes nagusia izanik, interes hori zeharka sartzen jarraituko dugu arauak garatzean eta politika publikoak egitean.

## BERDINTASUNA GIZONEZKOEN ETA ANDRAZKOEN ARTEAN

EAJ-PNVren ustez, Bizkaia hemen bizi eta lan egiten duten andrazkoen eta gizonezkoen ekarpen kolektiboa da. Berdintasunaren Foru Arauak bat egiten du Bizkaiko Foru Aldundiak orain dela hamarkada asko hasitako bidearekin; izan ere, orduan espazio publikoan onartu eta ikusarazi egin genuen Bizkaiko andrazkoen errealtatea; eta horrek dakar gizarte osoa kontzientziatzea eta laguntzaile izatea benetako berdintasunean, bai eta andrazkoen aurkako indarkeria prebenitu eta erazteko.

Hauexek dira gure konpromisoak:

- › Konpromisorik handiena andrazkoen eta gizonezkoen berdintasunarekin. Berdintasunaren Foru Arauan eta Berdintasunaren bosgarren planean jasotako printzipio eta jardunak oso-osorik aplikatuko ditugu; horren helburua izango da eraginkortasunez bermatzea Bizkaiko andrazko guztien eskubideak bizitzako eremu guztietan: lanean, kulturean, aisian, kirolean...
- › Genero-ikuspegia duen ebaluazioa areagotuko dugu, bai foru-araudia bai Bizkaiko Foru Aldundiaren plan eta zerbitzuak gertatzean eta aplikatzean.
- › Klausula sozialak erabiliko ditugu kontratazio publikoan, berdintasunak lan-eremuan benetan aurrera egitea errazten duen tresna gisa, bai enpleguan aukerak izateari dagokionez, bai enpleguaren kalitateari eta ordainketa-berdintasunari dagokienez.
- › Espazioak bultzatuko ditugu agente sozialekin berba egiteko eta haiekin lankidetzan jarduteko, zertarako eta berdintasunerako foru-politiken eragina ahalik handiena izan dadin.
- › Erantzun integral sendoagoa emango diegu genero-indarkeriaren biktima diren andrazkoei; horretarako, koordinazio-ahaleginak ugarituko dira bai indarkeria antzematean, bai trantsizio-egoeretan.

## GIZARTE-ZERBITZUEN KONTROLA

Ereduzko izaten jarraitu nahi dugu bizitzako uneren batean laguntza behar dutentzat. EAJ-PNVn badakigu hori lortzeko batera eroan behar ditugula baliabide publikoen moldaketa eta baliabideon erabilera egokiaren kontrol, jarraipen eta ebaluazioa. Kontrol horrek sistemaren efikazia hobetzen du eta saihestu egiten ditu gizarte-zerbitzuak eta gizarte-prestazioak hartzean gerta daitezkeen abusuak; hori erantzukizunez jokatzeko da baliabide publikoak aplikatzean; batez ere, justizia sozialeko arazoa da. Hauexek dira gure proposamenak:

- › Iruzurraren kontrola bultzatzen jarraituko dugu gizarte-laguntza guztietan.
- › Gizarte prestazioak ikuskatu eta kontrolatzeko plan orokorra sendotuko dugu tresna gisa; tresna horren bitartez jarraipena egingo da, gizarte-zerbitzuen eta gizarte-prestazioen baldintzak eta helburua bete daitezkeen modu sistematikoan eta koordinatuan.
- › Bizkaiko gizarte-zerbitzuen kalitatea eta egokitasuna bermatuko ditugu, zerbitzuok ikuskatuz eta kontrolatuz.
- › Aurrera egingo dugu gizarte-zerbitzuak eta gizarte-zentroak kontrolatu eta ikuskatzeko sistemetan bai eskuarte telematikoez bai bertatik bertarako eskuarteez; horren helburua izango da kontratu-konpromisoak betetzen direla bermatzea, bai zaintzen kalitatea bermatzea ere.
- › Jarraipen iraunkorra egingo dugu, auditoretzen bidez, sistemaren esku jarrita dauden baliabide pertsonal eta ekonomikoak modu egokian erabiltzen direla ziurtatzeko.

## EKONOMIA-JARDUERA ETA TEKNOLOGIA BIZI-KALITATEAREN ZERBITZUPEAN

Gizarte-zerbitzuen edo osasunaren arloko politika publikoak balio-iturri dira pertsonentzat eta gizartearentzat; horrezaz gainera, ekonomia-jarduera sortzen du. *Nagusi Intelligence Center* (NIC) abian jartzea atea izango da industriaren sektore bat garatzeko; sektore horren guneak dira: adinekoren bizi-kalitateko diseinatutako edo moldatutako produktuak egin eta zerbitzuak ematea, eta bizimodu independentea erraztea. EAJ-PNVrentzat, ekonomia-jarduera eta bizi-kalitatea txanpon beraren bi aldeak dira. Hauexek dira gure proposamenak:

- › *NIC – Nagusi Intelligence Center* abian jarriko dugu; berau estrategia da *Silver Economyren*, zilar-ekonomiaren, edo zahartzearen inguruko industria-sektore bat bultzatzeko.
- › Ikerketa-ildoak bultzatuko ditugu BioCruces-Bizkaian; lerro horiek lotuta daude Bizkaian eragin handia duten gaixotasunekin; horietan ezagutza eta ekonomia-jarduera bateratu ahal izango dira.
- › Gure ekosistemarekin lotu eta erakarriko ditugu gizarte-teknologietan edo osasun-teknologietan erreferentziakoak diren enpresak.
- › Bizkaiko zentro eta programetan testatu eta baliozko-tutako aurrerapen teknologikoak hartuko ditugu bizi-kalitatean aurrera egiteko faktore gisa.
- › Mekanismo berriak sortuko ditugu agente ekonomikoak inplikatzeke inklusio soziolaboraleko eta belau-naldien arteko txandakatzeko estrategietan.
- › Ekonomia sozial eta solidarioari laguntza emango diogu, berak enplegu inklusiboko aukerak sortzen dituelako.

- › Kontratuen erreserba sustatu eta klausula sozialak sartuko ditugu Bizkaiko Foru Aldundiak eta beraren mendeko erakundeek egiten duten kontratazioan.
- › Jarduera berrietan sustapena eta inbertsioa egingo ditugu, noiz eta haiek XXI. mendeko erronka sozial eta ingurumeneko erronka handiei heltzen dietenean.

## GAZTERIA

Bizkaiaren erronka nagusietako bat gazteei atxiki eta gazteok erakartzea da. Gazteek bermatuta izan behar dute euren bizi-proiektuak hemen garatu ahal izango dituztela aniztasunetik, eta horretarako aprobetxatuko dituzte lurraldeak eskaintzen dituen aukerak. EAJ-PNVk apustu egiten du helburu horren alde lan egiteko gazteriatik, gazteriarekin eta gazterientzat, betiere hiru ardatz argi hauetatik:

- › **Hurbiltasuna.** Aukerak (oraingoak eta etorkizunekoak) identifikatzen, interpretatzen eta bideragarri egiten jakin behar dugu; izan ere, aukerok erantzuna eman behar diote gizarteko sektore honi, eta espazio eta dinamikak sustatu behar dituzte lurraldeko gazteekin harremanak etengabe errazteko, haien inguruetan eta haiek nahi duten moduan.
- › **Ko-sorkuntza.** Ekimenak abiarazten lagunduko dugu, bidelagun izan, gazteen beharrezan erantzun, gazteekin elkarlanean aritzeko inguruak eta egoerak sortuko ditugu, zertarako eta gazteei euren bizi-proiektuan lagun egiteko helduak izan arte. Egin bai, baina eurekin batera.
- › **Sarea.** Espazio komun bat eta nortasun jakin bat sortuko ditugu; nortasun horrek lurraldeko gazteen aniztasuna errespetatuko du, eta gazteen erkidego bat sortzea erraztuko du, gazteak lurraldearekin eta Bizkaiaren eraldaketarekin konprometituta egon daitezen.

## HERRITARRENGANDIK HURBIL, UDALETTIK HURBIL

Edozein administrazioren betebeharrak bat herritarrengandik hurbil egotea da, herritarrak baitira politika publiko guztien hasiera eta amaiera. Bizkaiko udalak gizartetik hurbilen dauden instituzioak dira, beraz, Foru Aldundia haietara hurbilaztea da gure gizonezkoengana eta gure andrazkoenga-

na hurbilaztea, betiere argi asko daukagula lehen mailako herritarrak eta herriak baino ez daudela.

Hauexek dira gure proiektuak:

- › *Herri txiki, aukera handi* programa sakatuko dugu; horren helburua, berriz, hauxe izango da: Bizkaiko herri txiki guztiak heldu ahal izatea zerbitzu publiko berberetara: sozialak, mugikortasuna, aisiakoak, kultura, kirola eta Internetera sartzea. Bizkaian lehen mailako pertsonak eta herriak baino ez daude, eta proiektu pilotu birekin hasiko gara Arratiko eta Mungialdeko eskualdeetan. Alde biotan erabilera publikokoak diren kulturaren, kirolaren eta laguntzaren azpiegituren mapa sortuko dugu, eta udalekin batera landuko ditugu eskualdeko zerbitzurako egiten diren proposamenak.
- › Herritarrentzako arreta integraleko bulegoak lurraldean zabaltzen jarraituko dugu, zerbitzu gehiago eta hobeak eskaintzeko, arreta hurbiletik emateko eta tramiteak errazago izan daitezen herritarrentzat.
- › Herritarrentzako arretaren digitalizaziora bidean jarraituko dugu lanean, betiere bertatik bertarako arretari eutsiz.
- › Adi egongo gara tramitazio elektronikoaren bilakaerari; elkar-eragingarritasuna eta sinplifikazio administratiboa bultzatuko ditugu, eta arreta ematean berrikuntza teknologikoa bilatuko dugu.
- › Lurraldeko gobernu irekia sustatuko dugu, Foru Aldundia hurbilago egon eta eraginkorragoa izan dadin. Guk nahi dugu Foru Aldundiak bere egitea gobernu-erantzukizuna eta erabakiak hartzeko ahalmena, baina, aldi berean, nahi dugu irekia, hurbila eta iragazkorra izan dadila herritarrek dituzten beharrezan, iritzi eta eskarien aurrean.
- › Gizartearen partaidetza sustatuko dugu foru-proiektuen diseinuan, ezarpenean eta jarraipenean, bai kontu emateko egiten diren topaketa orokorren edo sektorialen bidez, bai eta politika publikoak elkarrekin sortzeko egiten diren lankidetzak-espazioen bidez.
- › Bizkaiko Foru Aldundiaren Prebentzio, Su-itxaltze eta Salbamenduko Zerbitzua zabalduko dugu; horen helburua izango da arreta hobea ematea premiako egoeretan, eta horretarako suhiltzaileen parke berriak eraikiko dira Zallan eta Gernikan; hori ez ezik, etengabe bilatuko ditugu konponbide berritzaileak segurtasunaren arloan.

## › EKONOMIA-JARDUERA ETA ENPLEGUA

Azken legegintzaldi hau trantsizio-aldi gisa definitu ahal izango genuke; aldi horretan, EAJ-PNVren taldearen lanari esker, Bizkaiak urratsak egin ditu krisia ahazteko eta hazkunde ekonomikoaren garai berri bat finkatzeko. Orain zerbait gehiago nahi dugu eta horixe lortu behar dugu.

Legegintzaldi berriak Bizkaiarentzat inflexio-puntua izan behar du: EAJ-PNVtik jauzi bat egin nahi dugu aurrera. Aitzindariak izan behar dugu eta konfiantza izan behar dugu geure gaitasunetan; horrela, proiektu berezi bat egingo dugu etorkizunari begira, proiektu horren bidez gure lurraldea lekuri onena izan dadin ekin, hazi eta mundu zabalean lehiatzeko. Lurraldeak gaitasun handia izan behar du talentua eta ezagutza sortu eta erakartzeko; andrazko gehiagok egon behar dute enpresen eta antolakundeen zuzendaritza-organoetan, eta lurraldeak konektibitate handia izan behar du: barrukoa eta kanpukoa, fisikoa eta digitala.

Legegintzaldi honetan EAJ-PNVren taldeak lortuko du behin betiko oinarriak jartzea, zertarako eta Bizkaiko eskualde guztiek ongizatearen eta enpleguaren adierazle berdintsuak izan ditzaten. Badakigu zein Bizkai nahi dugun eta badakigu zelan lortuko dugun hori. Goazen!!!

Bizkai hau nahi dugu:

1. Bizkaia lekuri onena, ekin, hazi eta lehiatzeko
2. Bizkaia, talentua eta ezagutza dituen
3. Bizkaia, lurralde orekatu, erakargarri eta konektatua

Hori guztia, biharko Bizkaiaren nortasun-ezaugarri izan dadin haren gaitasun handia kalitateko enplegua sortu eta mantentzeko.

Izan ere, enplegua da garapenerako eta pertsonen arteko harremanetarako tresnarik garrantzitsuen giza aurreratueta. Horregatik, lanaren aldeko eta pertsonen enplegarritasuna sustatzearen aldeko apustua egin dugu. Pertsona horiek etengabeko prestakuntzaren aldeko apustu egiten dute. Pertsona horiek badute gaitasun eta kualifikaziorik lan merkatuan modu aktiboan mantentzeko.

### 1. BIZKAIA LEKURI ONENA, EKIN, HAZI ETA LEHIATZEKO

Guk nahi dugu Bizkaia ardatz atlantikoko lekuri onena izatea, zertarako eta ekintzaileek euren enpresa-proiektuak egia bihurtzaten, enpresa txikiak hazi daitezten eta enpresak lehiakorragoak izan daitezten mundu zabalean. Apustu egiten dugu pertsona eta enpresa jakin batzuen alde, hau da, lanpostu berriak sortzen dituzten ekimen berriak dituzten alde.

Ekosistema bat sortuko dugu ekintzailetzari eta startupeki laguntzeko; ekosistema horren oinarriak hiru "k" izango dira: kontzentrazioa, komunitatea eta konektibitatea.

**K**ontzentrazioa, startupen eta ekintzaileena; guztiak inguru fisiko berean izango dira; horrela, sinergiak indartuko dira, eta ekosistema ekintzailea ikusarazi eta lekutu ahal izango da. Gainera, Bizkaiko ekosistemako startupen masa kritikoa gehituko da, zelan eta Euskaditik kanpoko startupak aktiboki erakarriz.

**K**omunitatea, bertokoa eta nazioartekoa; bultzatuko da startupek, inbertsiogile pribatuek, inbertsiogile publikoek eta enpresa traktorek elkarri eragitea, horiek bizkaitarrak izan edo nazioarteko nodoak izan, eta Bizkaiko ekintzaileen komunitateko kide izatearen sentimendua sortuko da.

**K**onektibitatea, nazioartekoa; erraztuko da startupak eta ekintzaileak munduko erreferentziako nodoetara sartu ahal izatea, zubi iraunkorrak sortuz.

Gainera, EAJ-PNVk bikaintasuna bilatuko du startupak eta enpresa industrialak finantzatzeko tresnen garapenean eta tinkatzean; haien azelerazioa erraztuko du, bai eta haien hazkundera eta haiek dituzten inbertsio-proiektuen gauzatzea ere.

EAJ-PNVk beti izan du lehentasun gisa industriari laguntza ematea; izan ere, garrantzitsua da Bizkaiko ekonomia-entzate aberastasuna sortzen duen sektorea baita, eta horrek kalitateko lanpostuei eustea ahalbidetzen baitu. Laguntza integral horrek lehiakortasunaren hiru ardatzei eragiten die: berrikuntza, inbertsio lotuak eta nazioartekotzea.

Bizkaiaren oinarriek haren indarguneak izan behar dute; indarguneok, berriz, hauek dira: industria eta lurraldeko lehentasuneko sektoreak (automozioa, aeronautika, energia, osasuna), eta zerbitzu aurreratuen espezializa-



zioa; apustu handiagoa egingo du balioa dakarten zentro sektorialak sortzeko, betiere sektore estrategikoak bultzatze aldera eta lanpostu berriak errazago sortze aldera; horrela, gazteek eskura eduki ahal izango dituzte Bizkaiarentzat lehentasunezkoak diren proiektu industrial eta berritzaileak.

## EKITEA

- › European ondoen konektatua dagoen ekintzailetza-huba sortuko dugu; horrek gure enpresei eta ekintzaileei Bizkaitik eskainiko die planetako ekosistema nagusietara sartzeari; Ekintzailetzaren Nazioarteko Zentroa gauzatuko da, eta espezializatua izango da energia, automozioan eta foodtechen.
- › Euskaditik kanpoko startupak modu proaktiboan erakartzeko estrategia, Bizkaiko masa kritikoa gehitzeko.
- › Barruko ekintzailetzari laguntza emango diogu: aukerak identifikatzeko laguntza emango diogu, zertarako eta Bizkaiko enpresa traktoreek ekintza enpresarial berriak gara ditzaten.
- › Ekintzailetzaren kultura hezkuntza-inguruetan sustatuko dugu. *Egin eta ekin* (bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleei zuzendua) eta *Zitek* (unibertsitateko ikasleei zuzendua) programak indartuko ditugu.
- › Bultzada emango dugu andrazko gehiagok abian jar ditzaten enpresa berriak; arreta berezia emango zaio andrazko gehiagok parte hartzeari, zertan eta eduki teknologiko handiko enpresak abian jartzen.
- › Bizkaiko turismoaren dinamismoa aprobetxatuko dugu, sektore horrek aberastasuna eta enplegua

sortzen dituelako, eta haren jasangarritasun soziala eta ingurumenekoa bermatuko dira.

- › Bermatuko da Bizkaiaren ekintzailetzari laguntzeko lan egiten duten agenteak koordinatuko direla.

## HAZTEA

- › *Startupe* eta ekintzaileei zuzentzen zaizkien zerbitzuen eskaintza integrala: aholkularitza espezializatua, erreferentziako nazioarteko nodoetara sartzeari eta mentorizazioa...
- › *Elkarlanean* programa sendotuko dugu; izan ere, programa horrek enpresen arteko lankidetzak sustatzen du, enpresa txikien neurria hazteko, betiere haien lehiakortasuna hobetze aldera.
- › Balio-kateak indartzeko programa berria; horren helburua izango da enpresa traktoreen eta bertan dituzten hornitzaileen arteko konpromisoa indartzea lehentasuneko sektoreetan.
- › Bertoko kontratazioari laguntza emango diogu, bai inportazioak ordeztzeko, bai erosketak publiko berritzaileak egiteko.
- › Bizkaiko eskulangintzaren sustapena bultzatuko dugu, bai eta sektorearen kudeaketaren eta lehiakortasunaren hobekuntza bultzatu ere.
- › Jardun espezifikoak garatuko ditugu, Bizkaiko enpresa turistikoak hazi eta indartu daitezela.



## LEHIATZEA

- › Bizkaiko industriaren lehiakortasuna hobetuko dugu; horretarako, haren beharrezan laguntza integrala emango zaie, eta politika publikoak egingo dira berrikuntzari, inbertsio lotuari eta nazioartekotzeari laguntza emateko.
- › Laguntza-programen eskaintza moldatuko dugu enpresen neurriaren arabera, proiektuen garrantziaren arabera eta enpresek duten berrikuntza-mailaren arabera; horri begira sendotuko dira txekeoen programa (proiektu txikiarako), 2i programa (proiektu ertainetarako) eta 3i programa (proiektu traktoreetarako).
- › Bizkaiko enpresetan berrikuntza ez-teknologikoa bultzatu eta sustatuko dugu, berrikuntza hori ezinbestekoa delako enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta berrikuntza teknologikoko neurriak arrakastatsuak izateko.
- › Berrikuntza irekiko prozesuak erraztuko ditugu, zelan eta erreferentziako bizkaitar enpresak *startup* globalekin edo nazioartekoekin harremanetan jarritz.
- › *Doing Business / Invest In* zerbitzua sendotuko dugu; zerbitzu horrek arreta ematen die inbertsio handiei eskaintza integral hau eginaz: berrikuntzaren eremuetako industria-lurra, finantzaketa espezifikoak, fiskalitate propioa eta laguntza publikoak, inbertsio lotua eta nazioartekotzea.
- › Estrategia bat garatuko dugu enpresak eta erabaki-zentroak Bizkaian sustai daitezzen; horren helburua izango da balio erantsi handiko lanpostuak sendotzea.
- › Apustu egingo dugu turismo eta enpresen kudeaketa-ereduak kalitatekoak eta jasangarriak izan daitezzen; horretarako, espezializazio- eta bikaintasun-programak lehenetsiko dira Bizkaiko enpresen artean.
- › Andrazko gehiago egotea bultzatuko dugu Bizkaiko enpresen eta haien enpresa-elkarteetako zuzendarien artean eta zuzendaritza-organoetako kideen artean.
- › Ezkerraldeko eta Meatzealdeko parke teknologikoa garatuko dugu zertarako eta enpleguak sortzeko aukera-espazio berri gisa.

- › Harreman egonkorak izango ditugu erregio jakin batzuekin trukeak egiteko; erregio horiek erreferentziako aitzindariak dira politika publikoen eta praktika onen berrikuntzan, betiere sustapen ekonomikoaren arloan.

## FINANTZAKETA

- › Bizkaia europar erreferente bihurtuko dugu, zertan eta eragineko inbertsioen finantzaketa-tresnetan, betiere eragin hori enpresa, antolakunde eta funtsetan gertatzen denean, baldin eta horiek gizartean eta ingurumenean eragina eta finantzaketa-itzultzea bilatzen badituzte.
- › Erraztasunak emango ditugu *startup*ak kapitalera, bazkideetara eta merkatuetara hel daitezzen.
- › Kapital-haziko funtsak eta mikrokredituak zabalduko ditugu mikropymmentzat, Seed Capital Bizkaia foru-sozietatearen bitartez.
- › Seed Capitalen BI funtsa (Enpresak hazteko funtsa) zabalduko dugu.
- › *Crowdfunding Bizkaia* tinkatuko dugu; horixe da ekintzaileentzako finantzaketa kolektiboko tresna publiko-pribatu berria.
- › Sozietateen gaineko Zergaren 64.bis artikulua erabilera sustatuko dugu berrikuntza proiektuen finantzaketa errazteko. Artikulu horri esker berrikuntza egin duen enpresak kenkari fiskalaren lagapena egin diezaioke berrikuntza finantzatzen duen enpresari.
- › Berrikuntza Funtsa sendotuko dugu; hori epe luze-ko funtsa da berrikuntza-proiektuak finantzatzeko, zelan eta Elkargik % 100ean abalaturako maileguak emanaz.
- › Europako funtsak hartuko ditugu; horren helburua izango da Bizkaiko Foru Aldundiak sakatutako sustapen ekonomikoko programak elkarrekin finantzatzea.

## 2. TALENTUA ETA EZAGUTZA

EAJ-PNVren ustez, lehentasuna da Bizkaiarentzat talentua berreskuratu, erakarri eta berari atxikitzea, lurralde honek apustu egiten duelako nazioarteko lehiakortasunean maila handiei eusteko. Ezagutza sortu eta zabaltzeko zentroak sortu eta garatuko ditugu, zentrook nazioartean onarpen handia dutela; horixe izango da datorren legegintzaldirako apustuetako bat, eta gazteak erakartzeko tresna izango da, baldin eta gazteok euren prestakuntza osatu nahi badute enplegarritasun maila altua bermatzen dien bikaintasun-inguru batean, eta enpresa-ehun berritzaile batekin harreman estuetan egon nahi badute.

EAJ-PNVk apustu egiten du talentuari Bizkaian atxikitzeko; horretarako, kalitateko enplegua eta aukerarik onenak eskainiko ditu lurraldean modu profesionalen garatzeko; gainera, politika berriak garatuko ditu, gazteak mundu zientifiko-teknologikora eta ezagutza sortzen duten zentroetara hurreratzeko, eta bokazio zientifiko-teknologikoak iratzartzeko. Gainera, indartu egiten du Bizkaiko sistema zientifiko-teknologikoarekin eta hura sendotzearekin duen konpromisoa, eta apustu egiten du arlo estrategikoak identifikatze aldera, zertarako eta arloetan ezagutza-zentro adituak garatzeko; izan ere, zentrook bokazioa izan behar dute bikaintasun zientifikoaren nazioarteko benetako erreferenteak izateko.

### TALENTUA ERAKARRI, BERRESKURATU ETA HARI ATXIKITZEA, ETA SAREAN LAN EGITEA

- › EAJ-PNVk estrategia integrala garatuko du, zertarako eta gure talentua berreskuratu eta hari atxikitzeko, gure enpresa eta antolakundeek behar dituzten pertsonak erakartzeko, eta sarean lan egiteko, betiere munduan dauden euskal profesionalekin loturak ezartze aldera.
- › *Be Basque Talent Network* sarea indartuko dugu; sare horrek 2018an 330 enpresa eta 11.000 profesional zituen ehun herrialdetan. Sare hori bakarra da munduan, profesionalak bilatu eta haiek elkarrekin lotzeko, bai eta profesionalak eta enpresak lotzeko ere.
- › Talentua kudeatzeko plataforma digital berriak garatuko ditugu, *Basque Talent Observatory* big dataren bidez.
- › Estatu mailako lehenengo plataforma diseinatu dugu, profilen irakurketa semantiko automatizatua

egiteko; horrela, enpresek gai izan beharko dute berehala antzemateko zein diren euren eskaintzei lotzen zaizkien kandidaturak.

- › *Talentia* programaren bitartez gazte talentudunen tutore-lanak egingo ditugu, eta programa hori lanbide-heziketako goi-mailako zikloetara zabalduko ditugu.
- › *Be Basque Talent Conferences* indartuko dugu; topaketa horiek profesionalen eta enpresen artekoak dira eta Europako hirietan antolatzen dira; topaketen helburua, berriz, hauxe da: Bizkaian lan-kontratuak sinatzea. Munduan aukerak dituzten beste alde batzuk aukeratu ditugu, batez ere Latinoamerikan, bertan euskaldun asko baitaude.
- › Bikaintasuneko nazioarteko prestakuntza eman-go dugu erreferentziako unibertsitateetan, eta *Be Basque Talent Award* saria eta *Be Basque Ambassadors* programa berria sortuko ditugu.
- › Gela hauek mantendu eta indartuko ditugu: aeronautika, makina-erreminta, espazioa eta ekodiseinua, betiere euskal unibertsitateekin elkarlanean.
- › Kualifikazio handiko profesionalak prestatuko ditugu, turismoaren sektorea garatu eta sustatzeko.
- › Lanbide-heziketaren hobekuntza bultzatuko dugu enpresen artean, hauek lanean baitihardute Bizkaia lurralde erakargarria izan dadin bisitarientzat, inbertsioetarako edo talenturako.

### EZAGUTZA-ZENTROAK ETA ZENTRO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAK GARATZEA

- › *Automotive Intelligence Centerrekin* elkarlanean (AIC), berau automozio sektorean nazioarteko erreferentziako poloa baita, zentro bat sortuko dugu ezagutzarako eta bikaintasuneko prestakuntzarako, betiere sektore honetako profesionalentzat zuzenduta.
- › Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuaren Zentroa (AFAZ) haziko dugu, nazioarteko erreferentziako poloa baita aeronautikaren eta makina-erremintaren sektoreetan, eta Bizkaian zentro bat sortuko dugu ezagutzarako eta bikaintasuneko prestakuntzarako, betiere sektore horietako profesionalentzat zuzenduta.
- › *Energy Intelligence Centerren* (EIC) lehenengo fasea abiaraziko dugu; bera nazioarteko erreferentziako poloa da energiaren sektorearen eta haren balio-katea Bizkaian ainguratzeko.

- › *Nagusi Intelligence Center* Zorrotzaurren sortuko dugu; bera erreferentziako zentroa da Bizkaiko ikerketa eta prestakuntzarako, eta haren helburua da biztanleriaren zahartzea aukera bihurtzea lurraldeko industria, ekonomia eta enplegurako.
- › Ikerketarako eta prestakuntzarako zentro bat bultzatuko dugu; zentro horrek aitzindaria izan behar du sare elektrikoetan, eta lagunduko du Bizkaiko energia-sektorea indartzeko, bai eta lurraldea deskarbonizatzen ere.
- › Institutu bat sustatuko dugu, mugikortasuna hobetzen laguntzeko eta ezagutza sustatzeko teknologia berriei esker; izan ere, eremu hori ezinbestekoa da Bizkaiko etorkizunarentzat.
- › Digitalizazioaren, *Big Data Analytics*en eta adimen artifizialaren eremuan, balioa sortzeko zentro berri bat diseinatuko dugu, lankidetzaren publiko-pribatuko izango dena.
- › Nazioartean prestigioa duten hezkuntza-zentroekin eta unibertsitateekin lankidetzan jardungo dugu, zertarako eta gure lurraldeko sektore estrategikoetan gaitasun berriak sortzeko (energia, automozioa, ingeniariak, aeronautika edo finantzak), bai eta sektore horiek Bizkaian beste garapen batzuk hartzeko ere.
- › Modu aktiboan lankidetzan jardungo dugu Bizkaiko goi-mailako zentro zientifiko-teknologikoekin; horren helburua da zentro horiek nazioarteko bikaintasun-mailak lortu eta mantentzea.
- › Bultzada emango dugu, nazioarteko erreferentziako pertsonak, berbarako Nobel saridunek, prestakuntza eman dezaten Bizkaian.

## ENPLEGAGARRITASUNA

- › Programa berritzaileak abiaraziko ditugu langabezian dauden pertsonak kualifikatzeko; programon helburua da pertsona horiek lana eskuratzea.
- › 45 urtetik gorako pertsonen arreta berezia jarriko diegu aipaturako programetan.
- › Funtzak indartuko ditugu, lan-aukerak sortzeko, bai alde behartsuetan, eta bai langabezia-tasarik altuena duten udalerrietan.
- › Langabezian dauden pertsonen erabateko laguntza emango diegu autoenplegu-proiektuak abiarazi nahi badituzte; prestakuntza emango diegu, bai eta laguntza ekonomikoak eta lagun egitea ere, bai negozioa abiarazterakoan, eta bai jardueraren lehenengo urteetan zehar.
- › Neurriak hartuko ditugu, zertarako eta gizon eta emakumeen artean dauden soldata desberdintasunen aurka borrokatzeko.



### 3. LURRALDE OREKATU, ERAKARGARRI ETA KONEKTATUA

EAJ-PNVk abian jarriko du politika publikoen eredu berri bat; horien helburua da Bizkaia lurralde erakargarri, berritzaile eta sortzailea, adimentsua eta berezia izatea, nortasun berezia duena, politika malguagoak eta parte-hartzaileagoak dituena; politika horiek sareko lana sustatuko dute eta mundu zabalean marka propioa duen lurraldea sorraraziko dute; gainera, arreta berezia emango zaio munduko nodo nagusiekin konektatzeari, bai lankidetzako fluxu tinkoen bidez, bai ezagutza elkarri trukatzuz.

Apustu egiten dugu ikuspegi berri baten alde, geure ekonomia nazioartekotzeko; ikuspegi horren oinarriak dira: irekiera, gizarte eta lurralde erakargarria eta abangoardiako beste lurralde eta gizarteekin konektatua izatea, bai eta beste pentsamolde batzuekin eta beste bizimodu batzuekin konektatua izatea. Izan ere, ikuspegi hori ondasun eta zerbitzuen truketik harantzago doa.

Bizkaiak, lurralde erakargarria baita, bere abantailak eraiki behar ditu bere ingurukoekin lehiatzeko, betiere mundu konplexu global eta elkarlotuaren esparruan. EAJ-PNVk lanean jardungo du, gure lurraldeak lehen mailako konektibitatea izan dezan: zelan barrukoa hala kanpoko, bai eta bide-azpiegiturei dagokienez eta konexio digitalei dagokienez ere. Banda zabala luzatzea lehentasuna izango da Interneteko konexioa bermatzeko bai ekonomia-jarduerako aldeetan bai biztanleguneetan.

EAJ-PNVren nortasun-ezaugarrien artean nabarmen da lurraldeko kohesioari ematen dion arreta berezia, Bizkaiko eskualde guztiekin duen konpromisoa; konpromiso hori berezia da bultzada gehigarri baten beharra izan dezaketen eskualdeekin, betiere lurralde osoko garapenaren eta ongizatearen mailak lortu ahal izan ditzaten. Kalitateko enplegua eta egonkortasuna dituzten eskualdeak nahi ditugu, haietan bizi eta lan egiteko.

#### LURRALDE ERAKARGARRIA

- › Bizkaia jarriko dugu Bizkaiko Badiako zentro ekonomiko, turistiko eta finantzario nagusi gisa; izan ere, Bizkaiko Badia Europako Badia da, eta berak Europako hegoaldeko atlantiar ardatzeko aitzindaria izan behar du.
- › Lurraldearen nazioarteko irudia indartuko dugu 2018-2025eko Posizionamendu Turistikoaren Planaren bitartez.
- › Nazioarteko foro, feria eta ekitaldietan egongo gara, horiek interes estrategikoa badute lurraldearentzat, eta abian jarriko dugu *Enbaxadoreak* programa.
- › Kanal digitalen bidez lehentasunezko merkatuetako bisitari eta profesionalentzat sustapena bultzatuko dugu; interes berezia jarriko da sare sozialetan, webetan eta informazio teknologikoko bide berrietan.
- › Bizkaiaren posizionamendua indartuko dugu lehentasunezko eta aukera handiko merkatuetan, zelan eta jardun propioak eginaz edo enpresa espezializatuekin elkarlanean: Erdialdeko eta Iparraldeko Europa, Erresuma Batua eta Irlanda, Frantzia, Italia, Iberiar Penintsula, Ipar Amerika eta Asiako eta Latinoamerikako zenbait merkatu.
- › Estrategia berritzaileak garatuko ditugu Bizkaia mundu zabalarekin lotzeko, eta lurraldearen nazioarteko irudia indartuko dugu; lan egiteko lehentasunezko ildoak izango da bisitariak, inbertsioak, talentua eta proiektzio handiko ekitaldiak ekartzea.
- › Modu aktiboan jardungo dugu lankidetzan nazioarteko sareekin, zertarako eta bisitak, inbertsioak, talentua edota ekitaldiak Bizkaiarentzat hartu ahal izateko.
- › Kanpaina bat egingo dugu turismo-baliabideak balioan jartzeko, bai eta lurraldeko udalerriki edertzeko ere; horren helburua izango da Bizkaiaren irudi erakargarria proiektatzea bisitariarentzat eta inbertsioetarako.
- › Udalerriei eta eskualdeei aholkularitza eman eta haiekin lankidetzan jardungo dugu, estrategia haiek garatzeko: turismoaren sustapena, turismo-produktuak sortzea eta toki-eremuko profesionalak hartzea.
- › Bizkaiko turismo-baliabideetara hobeto helaraziko dugu; horretarako, turismo-seinaleak modu orekatuan jarriko dira lurraldera sartzeko bide nagusietan.
- › Bide berriak jarriko ditugu abian destinoa hobetzeko; horretarako, proiektu teknologikoak edo zerbitzu berritzaileak erabiliko dira Bizkaian lanbideagatik edo aisiagatik egindako bisitaren esperientzia hobetzeko.

- › Bizkaian zehar bisitarien fluxuak hobetuko ditugu; horri begira, fluxuen kontzentrazioa orekatuko da lurraldeko alde jakin batzuetan.
- › "Lurralde laborategia" izanaraziko dugu; horrela, urtean-urtean lekutik lekura aldatzen diren ekitaldiak behin eta berriro etorriko dira Bizkaira eta Bizkaia erabiliko dute proposamen berriak sortzeko leku gisa, horrela Bizkaia marka globalekin lotuz.

## KANPOKO KONEKTIBITATEA

- › Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbidearen edo Supersurren eta AP-68ren arteko konexioa egingo dugu, eta itsasadarraren azpiko tunela egiteko obrak hasi, Arrontegiren alternatiba gisa.
- › AP68ren titulartasunaren eta kudeaketaren transferentzia lortuko dugu.
- › Azterlana egingo dugu, ibilgailu astunen pasaera kudeatzeko sistema bat abian jartze aldera.
- › Estu-estu lan egingo dugu aire-konpainiekin, trenbideekin eta gurutzatzeekin, zertarako eta Bizkaia kanpoarekin duen konektibitatea hobetzeko.
- › Jardun bereziak garatuko ditugu nazioarteko komunikabideekin, zertarako eta lurraldearen ospea azken kontsumitzaileentzako edo profesionalentzako euskarrietan hobetzeko.
- › Nazioarteko operadoreekin modu estrategikoan akordatu dugu nazioarteko bisitari-fluxuak Bizkaira modu antolatuta eta orekatuan bidaltzea.
- › Estrategia berri bat indartuko dugu eragin handiko nazioarteko ekitaldiak ekartzeko; izan ere, ekitaldiok ekonomia-jarduera, enplegua eta sustapen globala dakartzate Bizkaientzat. Antolakunde turistiko publiko zein pribatuaren nazioarteko sareetan parte hartuko dugu, haiek baitute erabakimena sektorearen etorkizunari buruz.
- › Modu aktiboan izango gara ekintzailetzarekin zerikusia duten nazioarteko foroetan; horren helburua da erregio ekintzaileen munduko sarearen lankidetzaren sendotzea.
- › Bide-azpiegituren berrikuntza-plana diseinatu, egin eta burutuko dugu sektoreko agente eta enpresekin lankidetzan; ildo horretatik, Bizkaia eskainiko dugu hurrengo eremuetan teknologia berriak probatzeko laborategi gisa: aktiboen kudeaketa, ITS (*International Talent Support*), sistema kooperatiboak, ibilgailu-azpiegitura konexio-sistemak eta erabiltzailearen komunikazio-sistemak.
- › Igarobide kooperatiboa abian jarriko dugu, berrikuntza-proiektuak aztertu ahal izateko azpiegituraren eta ibilgailuaren arteko komunikazio-eremuan.
- › Harreman estuak izango ditugu europar agente eta erakundeekin, baldin eta horiek aitzindariak badira bide-azpiegiturari aplikatu ahal zaizkien teknologietan, zertarako eta praktika onak eta arrakasta-kasuak elkarri trukatzeko (Herbehereak, Alemania, Austria, Danimarka).

## BARRUKO KONEKXIOA

- › Bidesarea planak aurrera egingo du, zertarako eta errepide eta azpiegiturak Bizkaiko eskualde guztietan hobetzeko.
- › Errepideen Lurraldeko Plan Sektoriala onetsiko dugu. Bizkaiko errepideen foru-sarea planifikatu behar da datozen hamabi urteetarako, erantzuna emateko mugikortasun-beharrizanei, betiere irizpide hauek mantenduz: garraio publikoaren sustapena eta ingurumen-jasangarritasuna.
- › Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurraldeko Plan Sektoriala egingo dugu; horren helburua izango da bizikleta lehentasunezko garraiobide gisa sartzea bai hezkuntzako eta laneko eremuetan, bai aisia dela-eta egiten diren lekualdaketatik; horrela, bizikletaren garapenera lagunduko zaio eta lagundu egingo da Bizkaia modu jasangarrian hezurramatzeko.
- › Plan bat egingo dugu bizikleta-bideak Bizkaiko eskualde guztietan egiteko; hori udalekin elkarlanean egingo da.
- › Bizkaiko udalerriek aholkularitza emango zaie eta haiekin lankidetzan jardungo dugu, neurri jakin batzuk hartzeko hiriguneetan trafikoa mantsotze aldera.
- › Azterlana egingo dugu lurraldeko hiri-zeharbideetan oinezkoen segurtasuna hobetzeko, eta udalentzako dirulaguntzen foru-dekretu bat abian jarriko dugu bide-segurtasuna hobetzeko.
- › Istripu ugari bide-tarteei buruzko informazioa indartuko dugu, zertarako eta bide-tarte horietan prebentzioa tinkatzeko.

- › Bizkaiko errepideetako 2019-2023ko Zarataren aurkako Borrokarako Plana garatu eta burutuko dugu. Jardunak osatuko ditugu pantailetan, eta fatxadak isolatzeko neurriak diruz lagunduko ditugu.

## LURRALDE OREKATUA

- › Bizkaia Metropolitarraren 2030 Master Plana sustatu eta egingo dugu, tresna izango baita Bizkaia hiritar, moderno eta kosmopolita garatzeko.
- › Plan berria egingo dugu industriako lur eta poligo- noak garatzeko, lankidetzara publiko-pribatua sartuz; eta industria-lur publikoa merkaturatzeko plana egingo dugu, lur hori malguagoa eta lehiakorragoa egiteko.
- › Bizkaiko industria-lurrak aztertuko ditugu, beraiek berreskuratzean aurrera egiteko, bai lurraren kutsadura arinago kenduz eta bai hirigintza-tramitazioa arinduz.
- › Bide-azpiegiturak hobetzeko plan bat garatuko dugu, zertarako eta azpiegituren beharrezko kontuan hartzeko industrialdeak, industria-lurrak, parkeak eta abar etorkizunean garatzen direnean.
- › Enkarterriko, eta Ezkerraldeko eta Meatzaldeko plan estrategikoak definitu eta garatuko ditugu; plan horien arabera, programa berritzaileak abiaraziko dira, zertarako eta langabezia dauden pertsonen gaitasun handia emateko eta pertsonen lan merkatuan sartzeko, eta, gainera, arreta berezia emango zaie gazteei, denbora luzean langabezia daudenei eta 45 urtetik gorako pertsonen.
- › Plan estrategiko bat definitu eta garatuko dugu Bizkaiko itsasertzeko ekonomia berrakibatuzeko.
- › Eskualdeetako agenteekin lan-espazio egonkorra sendotu eta indartuko ditugu, *Bizkaia Oreak* programaren esparruan, zertarako eta eskualdeen lehiakortasuna eta enplegua hobetzeko.
- › Aurrera egingo dugu *Bizkaia Oreak* programaren beste fase baterantz; fase horretan, eskualdeetan eragina indartu behar da ekonomia-jarduera handiagoa garatzeko eta lanpostu gehiago eta hobeak sortzeko giltzarri diren inguruen baldintzetan.
- › Laguntza emango dugu eskualdeetako gogoeta estrategikoak egiteko; horren helburua izango da ekonomia-jarduera berriak sortzeko aukerak identifikatzea, eta daborduko dauden enpresak garatzeko aukerak identifikatzea, eskualde bakoitzak dituen gaitasun endogenoak oinarri harturik.
- › Produktu eta ekitaldi aniztun eta askotarikoen eskaintza bat garatuko dugu; hori Bizkaiko eskualde guztietan zehar egin behar da, lurraldeak kanpoan duen irudia hobetzeko.
- › Maila ertaineko ekitaldien estrategia bat diseinatuko dugu Bizkaiko eskualde eta udalerrietan ekonomia-jarduera dinamizatzeko.
- › Merkataritza txikiaren eginkizuna indartuko dugu bera izan dadin tokian tokiko dinamizatzailea eta enpleguaren sortzailea; hori egingo da tokian tokiko merkataritzan kontsumoa bizkortzeko ekimenak garatuz.
- › Lehen mailako sektorea dinamizatuko dugu, eta laguntza emango diegu nekazaritzako elikagaien ekoizleei, horiek baitira lurraldea hezurramitu eta garatzeko ardatz.
- › Enpresak garatzeko oinarrikoak diren tresnetarako irisgarritasuna optimizatu eta unibertsalizatuko dugu: wifia, Internet, zuntz optikoa Bizkaiko industrialdeetan.
- › *iBai* sortuko dugu; hori online salmentako atari bat da, Bizkaiko tokian tokiko merkataritzarentzat eta KM0ren ekoizleentzat dena; atari horrek laguntza eman behar die salmenta Internet bidez egiteko.
- › Proiektu pilotu bat bultzatuko dugu salmenten zentrala lortzeko Bizkaiko tokian tokiko merkataritzarentzat, betiere merkataritza horri lehiakorrago izaten lagundu diezaion.
- › Lurraldearen kohesioa bermatzeko jarraituko dugu neurri jakin batzuen bidez, berbarako laguntza, babes finantzarioa, aholkularitza eta lagun egitea udalerriei, haien ekonomiaren oreka bermatzeko.

## › MUGIKORTASUNA ETA GARRAIO PUBLIKOA

Mugikortasuna eta garraio publikoa ezinbesteko elementu bi dira edozein gizarte moderno eta kohesionaturentzat. Bizkaiko herritarrek orain dela hamarkada askotatik badute errepideen sare praktiko eta ondo zaindua, eta badute puntako eta kalitateko garraio publiko bat; izan ere, garraioan, Metro eta Bizkaibus lurraldeko mugikortasun publikoaren aitzindariak dira. Azken legegintzaldi honetan erabateko bultzada eman diogu bide-sareari, arrakastaz burutu baititugu obra garrantzitsu batzuk, zelan diren Autzaganeko tunelak, Ermuko saihebideta edo Gerediaga-Elorrioko saihebideta. 3. linea erantsi diogu metroari, eta Bizkaibusen linea askoren lineak eta maiztasunak hobetu ditugu. Ez dago zalantzarik, Bizkaia erreferentzia da pertsonen eta haien ongizatearen zerbitzuko garraio-sistema artikulatzean.

Gure konpromisoa kalitate eta zerbitzuaren maila horri eustea da. Edozelan ere, munduko abangoardian dauden herrialde eta lurraldeetan jazotzen den legez, badiara erronka kolektiboak, alboraezinak direnak, eta haiei aurre egin behar die Bizkaiko mugikortasunak: sistemaren jasangarritasuna, eta ingurumenari eta bizimodu osasuntsuagoari errespetu handiagoa izatea. Badugu proposamenik apurka-apurka baina tinko erronka global biei heltzeko.

Etorkizunari begira apustu hau egiten dugu Bizkaiko mugikortasunerako, hurrenkera honetan: trena, bizikleta eta abarka. Badago jarrera global bat ibilgailu pribatuari dagokionez, eta jarrera horren arabera ibilgailua ahalik gutxienean erabili behar da, baldin eta hori egin ahal bada eta beste alternatiba batzuk badaude pertsonak mugitzeko dituzten beharrezkoak betetzeko, areago pertsona bakarrak lekualdatzen badira. Atzerazineko jarrera bada ere, jakin badakigu hamarkadak ditugula aurretik jarrera hori modu asebetegarrian egiteko. Ezin dugu ahaztu errealitate hori, pertsona askok mugitzeko edo lan egiteko oraindik ibilgailu pribatua erabiltzen duten errealitatea, eta erantzun irmoa eman behar diegu gure sare nagusiak oso gune jakin batzuetan pairatzen dituen auto-ilaren arazoei. Uste osoa dugu itsasadarraren azpiko tunelak eta Supersurren bigarren faseak eraginkortasunez lagunduko dutela bide jakin batzuetan puntako orduetan gertatzen diren arazoak arintzeko –La Avanzada, A-8 Max Centerren, edo Arrontegiko zubia–. Bizkaia bere historian auto-ilaren aurka egin duen eragiketarik handienaz eta garrantzitsuenaz ari gara. Erabaki hori Bizkaiko Foru Aldundiak hartu du, gogoan zituela autoa egunerok erabiltzen duten pertsonak. Gauza bera

esan daiteke beste 43 jardunei buruz, zeinek hobetuko baitituzte Bizkaiko eskualde guztietako bigarren mailako errepideak, Bidesarea planean sartuta daudenak.

Behin esku-hartze handi horiek sarearen korapiloak askatu eta gero, etorkizuneko apustua lurraldea hezurmami-tzea da sistema intermodal baten bidez; sistema horretan trena izango da protagonista nagusia, edukiera handikoa, arina, eroso eta jasangarria baita. Eredurik handiena hauxe izango da: metroaren sarearen eta Usansoloko ospitalearen arteko trenbide-konexioa, betiere Euskotrenen fluxuak aprobetxatuz. Uste osoa dugu bizikleta izango dela trenaren aliatua, eta horretarako gogoan dugu bidegorrien sare bat, herriak lotzen dituen eta bizikleta garraio-alternatiba merke, berde eta osasuntsu gisa erabiltzen ahalbidetzen duena. Sare horretan oinezkoek ere euren espazio erreserbatua izango dute lekutik lekura joateko eta aisiarako.

### ERREPIDEKO GARRAIOA

- › Itsasadarraren azpiko tunela bultzatuko dugu, Sestao eta Leioaren artean; asmo handiko proiektu honek gutxitu egingo du dentsitatea La Avanzada eta Arrontegi zubia bezalako bideetan; itsasadarraren alde biak lotzeko edukiera handiko bigarren lotura izango da, eta garraio intermodalaren alternatiba bat eskainiko du tunelean bertan.
- › Supersurren bigarren fasea bultzatuko dugu, zertarako eta berak ahal duen guztia eman dezan A-8 eta AP-8ren arteko lotura arin eta seguru gisa; obra horrek murriztu egingo du Ezkerraldeko trafikoaren bolumena, eta lurraldea lautadarekin eta Kantauriko itsasoko ertzarekin hobeto konektatuko du, eta alde-rantziz.
- › Bidesarea programarekin jarraituko dugu Bizkaiko eskualde guztietako errepideak optimizatu eta hobetzeko.
- › Bizkaiko automobil-industriari lagun egingo diogu auto elektrikoaren biderantz edo beste edozein propulsiotz mota jasangarritarantz.
- › Europar Batasuneko funtsei heldu ahal izatea sustatuko dugu, zertarako eta horiek lurraldearentzat beharrezkoak diren azpiegituren eraikuntzari aurre egin ahal izateko.



- › Bizkaibus hobetzen eta erabiltzaileen eta lurraldearen beharrezan araber moldatzen jarraituko dugu; ahaleginak egingo ditugu garraio publikoaren sistema geroago eta eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin; tarifa bereziak izango dira gazteenzat, eta lineak indartuko ditugu beste garraibide batzuekin osagarritasuna errazteko.

## TRENA

- › Metro, Galdakao eta Usansoloko ospitalearen arteko trenbide-konexioa bultzatuko dugu, betiere azpiegiturak eta gastu publikoa bikoiztu barik, eta Euskotrenekin sinergiak bilatuz.
- › Lan egingo dugu Bilboko hegoaldeko auzo guztiak eta hirigunea trenbidez konektatu ahal izateko.
- › Proiektu pilotu bat aktibatuko dugu, zertarako eta tren lurraldeko eskualde batean edo batzuetan gehiago erabil dadin, eta intermodalitatea, osagarritasuna eta eraginkortasuna erraztuko ditugu trenaren, busaren, bizikletaren eta oinezko bidaien artean.

## BIZIKLETA

- › Herrien arteko bidegorrien sare bat bultzatuko dugu, edukiera handikoa, bai eta laguntzako beste azpiegitura batzuk ere (aparkalekuak); horrela, errazagoa izango da bizikleta garraibide gisa aukeratzea; txirringarritza kirol-jarduera osasuntsu gisa sustatuko dugu, eta lurraldeko pertsona guztiei espazio seguru eta eroso eskuratuko diegu eurok ibili, paseatu eta modu osasuntsuan bizi ahal izan daitezen. Apustu egiten dugu Erletxeta, Zornotza eta Durangoren arteko konexioaren alde, bera izango baita mugikortasun, osasun eta aisiako azpiegitura berrien lehenengo eredu.
- › Bizkaiko udalei eragingo zaie euren bidegorrien sarea modu koordinatuan eta seguruan eraiki dezaten, edukiera handiko bizikleten sarearekin lotzeko.
- › Garraioaren sistema adimentsuak sustatuko ditugu, zertarako eta kalitate handiagoko zerbitzua eta kalitate handiagoko informazioa emateko Bizkaiko garraio publikoaren sarea erabili nahi dutenei.



## › KULTURA

Kultura gizarte baten kareorea da, oinarri horren gainean dautza gizatalde baten garapena, balioak eta etorkizuna. Kultura zaintzea da gizarte hobe, elkartsuago, berdintzaileago, batuago, sortzaileago eta aukera gehiagokoa bermatzea. Kulturari arreta ematea da, berez, sekula amaitzen ez den ataza, kultura etengabe berritzen delako, eta egunean baino egunean osagai gehiago hartzen dituelako. Bizkaia lurralde aberatsa da kulturari dagokionez, eta gizarte kultua hartzen du. EAJ-PNVren helburu nagusia hauxe da: kultura hori indartzea eta biztanleek premia biziko ondasun horri heldu ahal izatea.

Kulturaren aldeko apustua egiten dugu, aliatu ekonomiko ere baita, enplegua eta ongizatea sortzen baititu, eta gizarte aurreratu batean, baliodun Bizkaian, funtsezko faktorea baita. Bizkaia kulturaren erreferente bihurtu behar du bere ondarearen kudeaketan eta kontserbazioan, bere tradizioen berrikuntzan, bai eta bere talentua, museoak, ikuskizunak, festibalak, musika, dantza, antzerkia, diseinua, arkitektura... bertan eta nazioartean sustatzean ere. Kultura-adierazpen guztiek laguntzen dute gure gizartearen funtsezko balioak mantentzen.

Aitzindariak gara teknologia erabiltzen haitzuloetako paleolitoko artea hedatzen. Aurrera egingo dugu teknologia berrien erabileran, azkenok bide eman dezaten ikerketarako, ezagutza berriak sortzeko eta ondare-berastasuna pertsoneri hurreratzeko. Bermatu behar da Bizkaiko kultura-ondarea belaunaldi berriei transmitituko zaiela, eta ziurtatu behar dugu espezialistek haren gaineko azterlan zientifikoa egingo dutela. Talentuz beteriko lurraldea gara, eta EAJ-PNVk lanean dihardu talentu hori azal dadin, gara dadin, eta ezagutza gehiago, sorkuntza gehiago eta berrikuntza gehiago eman diezaion Europako gizarterik aurreratuenen artean dagoen gizarte honi. Hauexek dira gure proiektuak:

### BIZKAIKO TALENTU SORTZAILEA BULTZATZEA

Talentua lagunduko dugu, etorkizuneko inbertsioa baita, eta tresna baita ezagutza berriak, eta sormen- eta berrikuntza-maila handiagoak sortzeko; horiek guztiak oinarrizko tresnak dira gure gizarte aurreratuenen artean egon dadin.

- › Plataformak sendotuko ditugu prestakuntza garatzeko arte-adierazpenen espazioetarako, berbarako Sarea, Bizkaiko antzokien sarea, Euskalduna, *Urban Hall*, Rekalde aretoa, 6 pabiloia, La Hacería...

- › Bizkaiko arte-talentua lagunduko dugu beka eta laguntzen bitartez eta aholkularitza eta orientazioaren bidez; nazioarteko proiektuak indartuko dugu lehendik dauden programak berrituz, eta lankidetzan jardungo dugu nazioarteko eremuko proiektuekin, agenteekin eta instituzioekin.
- › Lehen mailako proiektu eszenikoak sortuko dugu, berak jar ditzan gure lurraldean eta mundu zabalean kultura, euskara, folklorea, dantza eta euskal musika, zelan eta Bizkaian jakintzagai horietan dugun ezagutzaren bidez.
- › Laguntza emango diogu sektoreari, berak ezar ditzan nazioarteko erreferentziako prestakuntza-programak dantzaren eremuan.
- › Rekalde aretoa sustatuko dugu gazteen topagune gisa eta Bizkaiko arterik abangoardistenaren erakusketa-erreferente gisa.

### ARTE ETA LETREN AUZOA

Bizkaiko Foru Liburutegia eta Foru Artxiboa sendotuko ditugu, gozatzeko, ikasteko eta ezagutza berriak sortzeko espazio gisa.

- › Foru Liburutegiaren ingurumarian leku bat sustatuko dugu elkarrekin topatzeko, aukerak emateko, ezagutza berriak sortzeko, eta kulturari sakondu nahi duten pertsonak bertara hurbiltzeko.
- › Lanean jarraituko dugu bibliografiaren eta dokumentuen digitalizazioan teknologia berrien bidez, zertarako eta munduko edozein erabiltzailek ikusi ahal izan ditzan gure funtsak eguneko 24 orduetan, eta gozatu edo ikertu ahal izan dezan gure ondare dokumental ikaragarriarekin.

### LURRALDEA KULTURAREN BIDEZ GARATZEA

Bizkaian erreferentziakoak diren kultura-proiektuak bultzatuko ditugu, eurok balio soziala sortzen duten neurrian; izan ere, haiek aktibo bat dira gizarte kohesionatzeko eta lurraldea garatzeko.

- › Bilboko Arte Ederren Museoa zabalduko dugu, zertarako eta haren ahalmen ikaragarria eta Bizkaia-erantzaren duen erakargarritasun kultural eta turistikoa indartzeko.

- › Aurre egingo diogu Guggenheim Bilbao Museoaren plan estrategikoa garatzeari; izan ere, plan hori onetsi zen haren bizitzako lehenengo 20 urteei jarraipena emateko.
- › Lankidetzan jardungo dugu lurraldean nazioarteko mailako festibalak sustatzen dituzten agenteekin; horren helburua izango da eskaintza koordinatua definitu eta adostea, eta haren proiektzioa bultzatzea amu gisa bertokoentzat eta turistentzat (folka, jazza, dantza, opera, artea...).
- › *Bizkaia Festibala* festibal handi egingo dugu; festibal horrek bertoko talentu guztia erakutsiko du; hori ez ezik, formatu txikiko erakusketa ibiltariak egingo dira.
- › BOS indartuko dugu, eta lagun egingo diogu hark lurraldetik harantzago duen proiektioan.
- › Gune sortzaileekin lankidetzan jardun eta haiek indartuko ditugu.
- › Bizkaian zeharreko ibilbideen programa bultzatuko dugu, zertarako eta lurraldeko sorkuntza eta ondare kultural eta historikoa ezagutu eta balioan jartzeko.

## TEKNOLOGIA BERRIAK ETA KULTURAREN HEDAPENA

Aitzindariak gara teknologia erabiltzen haizuloetako paleolitoko artea hedatzen. Urte hauetan zehar hartu dugun ezagutzarekin, jarraituko dugu teknologia berriak Bizkaiko kultura-ondarea osatzen duten elementuetan aplikatzen; horren helburua izango da pertsonak hurreztatzea gure lurraldeak dituen kultura-balioetara; izan ere, balio horiek, aldi berean, aurkezpen-txartelik onenak dira nazioarteko mailan ere bai.

- › **Euskal Museoa, euskal kulturak munduan duen atea**  
Euskal Museoa kulturaren erreferentzia da, zalantza barik, bere ibilbide eta historiagatik. Museoak ziklo arrakastatsu bat bete du, baina atea zabaltzeko behar du, eta bere burua moldatu XXI. mendeko gizartearen arabera. Apustu egiten dugu erabat berritzearen alde, zertarako eta euskal kulturaren egoera nazioartean indar dadin, eta gure herrian dauden eskaintzak osa ditzan proposamen dibertigarri eta erakargarri eginaz bai bertoko publikoarentzat bai turista eta bisitariarentzat.
- › **Labar-arteen interpretazio-zentroa**  
Bisitariari aukera emango dio iraganerako bidaia egiteko; bisitariak paleolitoan egindako artelanekin



gozatuko du, eta, aldi berean, topagunea izango da jakintzagai ezberdinetatik lortzen den ezagutza jakinarazteko; zentro hau Lekeition jarriko da, Lea-Artibain.

### › **La Encartada: artea, diseinua eta moda**

La Encartada txapelen antzinako lantegia eredu da Bizkaian zegoen ehun-lantegi bakarra berreskuratzean eta balioan jartzean, eta erreferentzia da nazioarteko erkidegoan. Lanean jarraituko dugu elkarrekin bizi daitezen tradizioa, jatorrizko makineriak ordezkatu, eta XXI. mendeko modernitatea eta aukera berriak. Ahaleginak egingo ditugu, museoa izateaz gainera, espazioa izan dadin ehungintzarekin loturik dauden sortzaile berrientzat.

### › **Itsas ondarea**

Bizkaia itsasoa da. Eta itsasoak ere kultura-ondare bat sortu du hiru espaziorekin oso lotuta: Itsas Museoa, itsasadarraren ezagutza-gunea eta itsasertzeko zurgintza berreskuratzeko gunea; Mendietako ontziola, eta Bermeoko Arrantzalearen Museoa. Hiru espaziook sustatuko ditugu.

### › **Industria-ondarea aukera gisa**

Industria-ondarea aukera bat da Bizkaian eta Bizkaia-arentzat, bai eta erronka ere erabilera berriei eta jasangarritasunari dagokienez; agente publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak behar du, bai eta jakintzagai eta ezagutza-eremuen artekoa ere. Aztertuko dugu ea hedatuko dugun gure industriaren iraganaren zeharreko ibilbidea, industria-ondare hori balioan jartzeko.

### › **Nazioarteko eremuko lankidetzak indartzea**

Zelan kultura-proiektuen mailan hala euren jardun-eremuetan erreferente diren antolakundeekin lankidetzan jardutearen mailan, berbarako *Fair Saturday*, *Moving Artists*, *Mendifilm festibala*...

## › KIROLA

Kirola bizi-kalitatea da. EAJ-PNVk lanean dihardu kirola egunero egin dadin lurralde osoan eta adin guztietan; errezetarik onena da pertsonen osasun onerako, eta tresna da hezkuntza, aukera-berdintasuna eta balioen transmisioa ziurtatzeko. Eskola-kirola eta jarduerak bultzatzen jarraituko dugu, zertarako eta Bizkaiko 45.000 ume baino gehiagok ezin hobeto pasa dezaten kirola eginaz asteburuetan, bien bitartean honelako balioak hartzen dituztelarik: ahalegina, adiskidetasuna, berdintasuna, nor bere burua hobetzea, iraunkortasuna edo errespetua. Hauexek dira gure proiektuak:

### ESKOLA-KIROLA: EGIN KIROLA, HAVE FUN!

- › Eskaintza askotarikoa eta kalitatekoa eskainiko diegu eskola-umeei, zergatik eta kirola egitea,aldi berean dibertitzen eta ikasten dabilzala, modurik onena delako bizi-ohitura osasuntsuak, elkarbizitza-balioak eta errespetua ziurtatzeko.
- › Ekintzak bultzatuko ditugu garai horretan hartutako ikaskuntzek iraun dezaten heldu-bizitzan zehar.  
Politikak ezarriko ditugu goiz, nerabezaroan kirola egiten uzteari saihesteko.
- › Eskola-kirolaren APPa; horrek informazio zehatza eskainiko du eskola-kirolaren barruan egiten diren kirol-jarduerei buruz; horren helburua da familiek eroso ikusi ahal izatea programatzen diren jarduerak guztien gainean beharrezkoa den informazio osoa.
- › Beste foru-aldundiekin, udalekin eta federazioekin batera, eskola-kirolaren barruan baterako jarduerak bultzatuko ditugu.
- › Konpromisoa dugu eskola-kirolaren denboraldiaren ikasturte amaierako jai handia antolatzeko; jai hori jardunaldi dibertigarri eta familiar bihurtuko dugu.

### PARTAIDETZAKO KIROLA

- › Bizkaian kirola egiteko dauden aukera ugariak herritarrei hurreratuko dizkiegu; udal-sareen sorkuntza bultzatuko dugu beraietan parte har dezaten kirolaren sustapenarekin, preskripzioarekin eta kudeaketa-rekin zerikusia duten tokian tokiko agenteek.
- › Gainerako administrazioekin batera ekimen eta programak sustatuko ditugu, zertarako eta andrazkoek kirola errazago egin ahal izan dezaten.

- › Bizkaiko herritar guztien kirol-praktikako mailak gehituko ditugu; Osasunaren Mundu Erakundeak ezartzen dituen gomendioetara hurreratuko ditugu herritarrek; erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan jardungo dugu, zertarako eta kirol-eskaintza jasangarriak, askotarikoak eta pertsona eta udalerrri bakoitzaren aukera eta beharrezkoak arabera garatzeko.
- › Udalekin eta sektoreko agenteekin batera neurriak bultzatuko ditugu, zertarako eta adinekoek jarduerak fisiko gehiago egin dezaten.
- › Desgaitasunean diharduten erakundeekin eta beste foru-sail batzuekin batera, kirol egokitua bultzatuko dugu aisia inklusiboko modu gisa.
- › Kirol-txartela lurralde osora zabalduko dugu; horrela, herritarrek errazago egin ahal izango dituzte jarduerak fisikoak, eta herritarrei aukera emango zaie kirol-instalazioak erabili ahal izan ditzaten.

### KIROLAREN BALIOAK BULTZATZEA

- › Herritarrei jakinaraziko dizkiegu kirolaren balio sozial positiboak adierazten dituzten portaerak; joko garbia bultzatuko dugu, bai eta pertsona guztienganako errespetua eta ohitura osasuntsuak, beraiek baitira funtsezko elementu edozein kirol-adierazpenetan.
- › Jardun-ildoak edota nahi den portaeraren dekalogoak ezarriko ditugu; hori etapa guztietan eta kirol-eremu guztietan egingo da.
- › Kirolean gizalegearen aurka gertatzen diren jokaera guztiak zigortu eta haiei zilegitasuna agerian kenduko zaie.

### GURE KIROL-HARROBIA SUSTATZEA

- › Apuesta decidida por el deporte de Bizkaia tanto en oErabateko apustua egiten dugu Bizkaiko kirolaren alde, bai kirolariei dagokienez, bai klubei dagokienez.
- › Kirol-programa espezifikoa garatuko ditugu, zertarako eta euren kirol-modalitatea ondo egiteko beharra duten kirolari guztiek kirola egin ahal izan dezaten; beharra etor daiteke kirolarien ezaugarri pertsonalengatik, kirol-etekinaren mailagatik edo kirolariek egiten duten kirol-modalitateagatik.
- › Kirol egokitua ikusaraziko dugu.

## BIZKAIKO KIROL-SISTEMA INDARTZEA

- › Ekintzak sustatuko ditugu pertsonen gaitasun profesionalak hobetzeko; hori oinarria izango da zerbitzuen kalitatea hobetzeko baldin eta zerbitzuok kirol-praktika sustatzen duten erakundeek eskaintzen badituzte.
- › Prestakuntza-zentroa, kirol-federazioekin eta Asfedebirekin batera.
- › Federazioetan praktikak bultzatuko ditugu, praktikok sendotu dezaten kudeaketa aurreratua sartzea, bai eta berrikuntza, ikerketa eta zereginetarako prestakuntza ere.

## ERREFERENTZIAKO LURRALDEA KIROLEAN

- › Lankidetzan jardungo dugu ekimenetan, noiz eta ekimenok errazten dutenean Bizkaiko kirolari eta klubak nazioarteko kirol-ekitaldietan egotea.
- › Bideak aztertuko ditugu, zertarako eta Bizkaiko kirolarietara maila goreneko ekitaldietan parte hartuko dutela bermatzeko; identifikatu eta lagunduko dira kirolariekin batzuk, zeinetan nazioarteko mailan burua erakutsi dezakegun, batez ere andrazkoek egiten badituzte; bai eta bertoko modalitateak ere.
- › Laguntza emango da Bizkaian goi-mailako lehiaketa eta ekitaldiak egiteko, batez ere kirol-modalitate hauetan: lurraldeko kirolarietara egiten dituztenak edo prestakuntza Bizkaian egin duten kirolarietara parte hartzen dutenak.

## ANDRAZKOA ETA KIROLA

- › Sustapena egingo dugu kirol-sistema osatzen duten erakundeetan modu aktiboan egon daitezen Bizkaiko andrazkoak; erraztuko dugu sisteman dauden eginkizun guztiak beregana ditzatela: zuzendaritzakoa, arbitroa, entrenatzailea, kirolaria eta ikuslea.
- › Ekintzak taxutuko ditugu, zertarako eta andrazkoak kirolean duen eginkizuna ikusarazteko; neurriak bultzatuko ditugu Bizkaiko andrazko kirolarietara erreferentzia izan daitezen gazteagoentzat, eta horretarako bisitak egingo dira zentroetara, eta solasaldiak, udalekuak eta abar egingo dira.
- › Hezkuntza Sailarekin batera programa bat egingo dugu, zertarako eta eskola-adineko neskatilek gogo

izan dezaten kirola egiteko, bai eta kirola egiteari utz ez diezaioten ere.

- › Segurtatuko dugu genero-ikuspegia benetan egon dadila profesionalentzat egiten diren hezkuntza-ekintzetan eta kirol-ekitaldietan.

## BIZKAIAN HERRI KIROLAK ETA BERTOKO KIROLAK INDARTUZ

- › Kirol autoktonoak jarriko ditugu balioan; haiek gizartearen egon daitezela ziurtatuko dugu; sustapena egingo dugu herritarrek interesa izan dezaten kirol hauekin, zelan eta kirolak egiteko datozen onura pertsonal eta sozialak erakutsiz; eta kirol-ondarea mantendu eta aberastearen garrantzia nabarmenduko dugu, berak ordezkatzeko gaituelako eta gure gizartearen ezaugarri delako; horren guztiaren helburua da belaunaldien arteko transmisioa erraztea eta denboran zehar irautea.
- › Planak bultzatuko ditugu arrauna, pilota eta kirol autoktonoa hobetzeko.
- › Sustapena egingo dugu kirol autoktonoko kirolari nabarmenak eta ezagunenak egon daitezen herritarren egunerokoan.

## KIROL-AZPIEGITURAK

- › Udalerri, federazio eta klubekin lankidetzan, laguntza emango diegu daborduko dauden kirol-azpiegituren funtzionamendu onari eta mantentzeari.
- › Kirol eta jarduera fisikorako azpiegituren plan estrategiko bat ezarriko dugu Bizkaiaarentzat.

## SOKATIRA 2020

- › Lankidetzan jardungo dugu ekitaldia antolatzen, ekitaldi hori elementu baita gure kirol autoktonoaren, gure kirolarien eta Euskadiren nazioarteko proiektiorako eta onarpenerako.
- › Munduari gure kirolak aurkeztuko dizkiogu, zelan eta Euskadin egiten diren goi-mailako kirol ekitaldiek dakarten soka luzea aprobetxatuz.

## › EUSKERA

EAJ-PNVk urte askoan dihardu lanean Bizkai euskaldunagoaren eta hizkuntza-kudeatzaile aurreratuagoaren alde. Gizarte eleaniztun bat gizarte askozaz aberatsagoa da, eta euskara tresna handia da gizarte-kohesiorako eta integraziorako. Guk nahi dugu Bizkaiko herritarrek erabili ahal izatea euren hizkuntza-aukera ahalik eta modurik benetakoenean, eraginkorrean eta berdinzaleenean. Euskara gehiago azalaraziko dugu kalean, eta horrek aurrera egitea esan nahi du gizarte gisa. EAJ-PNVrentzat, erronka motibagarria da euskararen erabilera bultzatzea enpresaren eremuan, berean balio erantsia ematen baitu, kirolean, teknologia berrietan eta, azken batean, gizarte osoaren eguneroko bizimoduan, bai eta Bizkaiko Foru Aldundian ere, non neurriak hartuko ditugun administrazioa eredu izan dadin gizartearentzat euskara lan-tresna gisa erabiltzean. Hauexek dira gure proiektuak:

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA EUSKALDUNAGO BIHURTU

- › VI. plangintzaldia indarrean jarriko dugu datozen urteetan guztiz elebiduna izango den administrazio baterantzko urrats sendoak eginez.
- › Bizkaiko Foru Aldundiko kargu publikoek euskararen erabileraren aldeko jarrera eraginkorrak hartu eta eredugarriak izatea bultzatuko dugu.
- › *Eramiak* (euskararen erabilerarako mikroplanak) sendotu eta ugarituko ditugu.
- › Bizkaiko Foru Aldundian egiten diren inkesta, azterlan, e.a. guztietan hizkuntza-irizpidea txertatuko dugu.
- › Bizkaiko Foru Aldundian zein foru-enpresa eta -erakundeetan jarduera zehatzak bultzatuko ditugu, euskararen erabilera sendotze aldera, eta hizkuntza-kudeaketa egokiak bultzatuko ditugu Bikain ziurtagiria eskuratzen joateko.

### AZKUE FUNDAZIOA EUSKARAZKO TEKNOLOGIEN ERREFERENTZIAKO ESPAZIOA

- › Euskaraz dauden tresna teknologikoak, aplikazioak, sarean dauden aukerak ezagutzera emango ditugu, eta tresna horien erabileran trebatzeko saioak, mintegiak, prestakuntza-programak eskainiko ditugu.

- › Kontsumo teknologikoa euskarazkoa izatera bultzatzeko ekimenak sortu eta bultzatuko ditugu.
- › Gaztetxoei begirako euskarazko "aisialdi teknologikoak" (preztakuntzakoa zein ludikoa) eskainiko ditugu urte osoan zehar.
- › Euskarazko teknologietan murgiltzeko, zein sorkuntza-prozesuak ezagutzeko gune esperimentalak abian jarriko ditugu Azkue Fundazioan.
- › Euskarazko teknologien inguruko foroak eta sarean dauden edukien zein produktuen inguruko foroak dinamizatuko ditugu, euskarazko eduki eta produktu gehiago sortzeko.

### ETORKINAK ERE EUSKARAZ

Urrats sendoak egingo ditugu etorkinak euskarara hurbildu, euskara etorkinei hurbildu, eta euskara integrazio-rako tresna erakargarri izan dezatela ahalbidetzeko.

- › Etorkinekin azken legegintzaldi honetan hasitako bideari jarraipena emango diogu, Bizkaiko hizkuntzen mapa osatuz eta beraien hizkuntzen eta euskararen arteko zubiak eraikiz elkarbizitzarako bitarteko moduan.
- › Etorkin helduentzako berariazko programak diseinatu ditugu euskarara hurbildu daitezzen eta euskararen ezagutzan aurrera egin dezaten.
- › Udalekin, gainerako eragileekin eta eredugarri izan daitezkeen etorkinekin batera programa pilotuak abian jarriko ditugu euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko oinarriak eta joerak eskaintzeko.

### AISIA EUSKARAZ

- › Aisia euskaraz izateko esku-hartze bereziak diseinatu eta planifikatuko ditugu, euskara erabiltzeko benetako guneak sortuz.
- › Gazteentzako egiten diren aisiako ekintzen eta programen artean euskarazkoak lehenetsiko ditugu.
- › Kirol eta kultura arloetako erreferentziako pertsonetatik identifikatuko ditugu euskaraz jarduten dutenak, eta gaztetxoentzako topaguneak, campusak, mintegiak, *workshopak*, udalekuak antolatuko ditugu.
- › *Berbagunea* eta euskararen hiztunak aktibatzekeo antzerako ekintzak Bizkaiko eskualde guztietara zabalduko ditugu.

## EREMU ESTRATEGIKOETAN EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA

Euskara gizarte-ekintza, kirol-eremuan, arlo sozioekonomikoan ohiko hizkuntza izan dadin arlo horietako eragile nagusiekin elkarlana sendotuko dugu.

### GIZARTE-EKINTZA

- › Sail eskudunarekin batera adinekoentzako egoitzetan euskarazko zerbitzua eskaintzeko eskuhartze zehatzak antolatuko ditugu, batez ere euskaldun kopuru handiko eskualdeetako egoitzetan.
- › Zaintzaile lanetan ari direnentzat berariazko programak antolatuko ditugu euskarara hurbildu daitezen eta bezero euskaldunei arreta euskaraz eskaini ahal izateko.

### KIROLA

Euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko Bizkai-ko kirol-federazioekin hasitako programa kirol-sistema osora hedatuko dugu, euskararen presentzia eta erabilera kirol-sistema osoan bermatuta gera dadin urte gutxiren buruan.

### MERKATARITZAN ETA OSTALARITZAN

Herritarrak euskara erabiltzera animatzeko eremu horietako eragile nagusiekin euskara non eta norekin erabili daitekeen ikusgarriago egiteko jarduerak antolatuko ditugu saltokiak eta ostalaritza guneak identifikatuz.

### PRESTAKUNTZATIK LANERA BIDEAN

Sail eskudunarekin koordinatuta eta lanbide-heziketako eta enpresetako ordezkariarekin batera berariazko kanpainak eta jarduerak antolatuko ditugu, ikasleak praktikak euskaraz egitera bultzatuz eta horretarako aukera izan dezatela sustatuz.

### EUSKARAZKO SORKUNTZA

- › Sail eskudunarekin batera euskararekin zerikusia duten produktu eta zerbitzuei lotutako jarduera ekonomikoari laguntza zehatzak eskaintzea bultzatuko dugu.
- › Euskarazko mota guztietako sorkuntzaren zabalkunderako eta ikusgarritasuna bermatzeko jarduerak antolatuko ditugu.

## EUSKARAREN INTERPRETAZIO-ZENTROA

Euskararen interpretazio-zentroa eguneratu, eraldatu eta eraberrituko dugu, herritarrek zein turistek euskararen berri errazago eta eskura izan dezaten eta bisitariak ere euskararen esperientzia bizitzera erakarri.

- › Euskararen interpretazio-zentro berria erdigunera ekarriko dugu, euskararen bilakaeraren, egungo egoeraren eta bizi-indarraren informazioa herritarren zein bisitarien eskura jarri. Europako gainontzeko hizkuntzen artean erreferentziako bilakatuko dugu gune hau hizkuntzaren berri emateko estrategiari dagokionez.
- › Gune zentral bat izango du eta horretaz gain eskualde guztietan, foru-museoetan edota bisitari gehien duten kultura-azpiegituretan, infopuntuak ere izango ditu euskararen munduetara hurbiltzeko gonbita egin ez bisitari orori.
- › Informazioa biltzeko gune izateaz gain atal ludikoa (galde-erantzunak, asmakizunak, erronkak, euskararen pertsonaiak, euskararen mugarriak...) ere izango du, baita interaktiboa ere bisitarien testigantzak eta abar utzi/jaso ahal izateko, e.a.
- › Gunea etengabe eguneratzen joango dena izango da eta bisitarien ekarpenek ere aberastu egingo dute.

### BIZKAIERA

Bizkaiera erabiltzen duten ikastetxe eta elkarteekin programa bat antolatuko dugu erabilera areagotzeko eta ikusgarriago egiteko. Irakasle eskolekin batera haien eskaintza programetan gai honi tarteren bat eskaintzeko adostasunak bilatuko ditugu.

## › INGURUMENA ETA LEHEN SEKTOREA

Berdea Bizkaiko koloreetako bat da, eta bada ingurumena errespetatzearen sinonimoa ere. Konpromisoa dugu lurralde berdeago, jasangarriago eta bizi-kalitate handiagoko batekin. Eta mahaiaren gainean jartzen dugu geure eguneroko ahalegina klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, kontzientziatik ez ezik, eguneroko politiketatik ere, zeinetan Bizkaiko Foru Aldundiak eskumenak dituen.

Bizkaia haren eskualde eta udalerrri guztien batura da, eta funtsezkoa da haiek guztiek ahal duten guztia modu orekatuan ematea, haietako biztanleek aukera berdinak eta bizi-kalitate bera dituztela. Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza garapen-ardatz dira, dibertsifikazio ekonomikoarekin batera, Bizkaiko landa-aldeetan; eta lehen sektorea, herri baten jarduera ekonomiko eta estrategikoa baita, funtsezkoa da, lurraldearen garapen orekatua lortzeko. Laguntza eman behar da beste ekonomia-jarduera batzuk garatzeko, bai eta landa-ingurunean bizi direnen bizi-kalitatearekin loturiko zerbitzuak garatzeko ere; bada, laguntza horrek bermatu egiten du landa-aldea bizia eta aktiboa izatea; izan ere, haren multifuntzionalitateak landa-aldea ondasun eta zerbitzu publikoen hornitzaile bihurtzen du etengabe bilakatzen ari den gizarte batentzat, zeinak ez baititu ahazten bere balioak eta sustraiak, eta etorkizun kohesionatuari begiratzen baitio. Helburu horiekin, honako lan-ildo hauek aurkeztuko dira:

### INGURUMENA

- › Garapen jasangarria eta klima-aldaketaren prebentzioa sustatuko ditugu; jarduera ekonomiko eta sozialen eta naturaren arteko oreka bizkortuko dugu pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko. Konpromisoa dugu geure ahalegina eremu hauetan batzeko: garraio publikoa; egoitza eta eraikin publikoetako energiaren efizientzia; fiskalitate berdea sakatzea, ingurumenaren zaintza lehenesten duena; ESG (*Environmental, Social and Governance*) finantza eta inbertsioak sustatzen jarraitzea; eta *Energy Intelligence Centerretik* (EIC) energia garbiak ikertu eta hobetzea.
- › Bizkaiko hondakinak kudeatzeko hirugarren plan integrala abian jarriko dugu, hondakinak hobeto kudeatzeko; sentsibilizazioa landuko dugu eta birziklatze-neurriak hartuko ditugu; zero isuri gordinaren alde egingo dugu, eta frakzio organikoaren biltzea sakatuko dugu okela eta arraina (kozinatua eta kozinatu gabea) edukiontzi marroian hartuz; eta abian jarriko ditugu eskualdeetako konpostaje-sistemak, teknologia berritzaileak oinarri hartuz.
- › Garbiker sozietate publikoaren bidez aurrera egin ahal izango dugu hiri-hondakin solidoen gaian, Bizkaian eskaintzen diren zerbitzuak herritarren beharrianen arabera moldatzeko; teknologia berriak sartuko ditugu, eta lankidetzan jardungo dugu sinergia eta hobekuntzak sortzen dituzten proiektuetan.





- › Garbiguneak eta garbigune mugikorrek indartzen jarraituko dugu, horrela Bizkaiko herritarrek errazago lagundu ahal izan dezaten gaikako bilketan eta birziklatzean.
- › Lankidetzeta publiko-pribatuan jarraituko dugu, zertarako eta hondakinen gaiari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak Bizkaian bermatzeko; lan handiagoa egingo dugu kolektibo sozialekin Artigasko Ingurumen Aretoaren bitartez, zertarako eta Bizkaia Europak hondakinen gaian ezarritako ratioetan jartzeko.
- › Hondartzetako sistema integrala sendotuko dugu, hondartza garbi eta seguruak bermatzeko.
- › Ebaluatu egingo ditugu lurraldeko hirigintza-jarduketek eta proiektuek ingurumenaren eta pertsonen gainean izan ditzaketen ondorioak, zertarako eta ondorio haiek ahalik eta gutxienak izan daitezen eta ingurumenean hobeto integra daitezen.
- › Biodibertsitatea babestuko dugu baso-kudeaketaren bitartez, zeinak natura errespetatuko duen, baso autoktonoa bultzatuko duen, eta basoko animaliak eta landareak bizi diren lekua eta ingurumen-baldintzak kontserbatuko dituen.
- › Sentsibilizazioa landuko dugu eskolek eta herritarrek ingurumenaren hobekuntzan parte har dezaten, zertarako eta ura alferrik gasta ez dadin, energia zentzuz erabiltzeko, hondakin gutxiago sortzeko eta mugikortasun jasagarria sustatzeko.
- › Hobetu egingo ditugu parke-etxeetan eta Armañóngo, Urkiolako, Gorbeia eta Gaztelugatxe interpretazio-zentroetan ematen diren zerbitzuak, hauek baso-azpiegiturak baitira naturagune babestuetako bisitariei arreta emateko; horrela, bisitarien esperientzia hobea izango dute ingurumeneko prestakuntza- eta sentsibilizazio-programen bidez.
- › Uren partzuergo bakarra sendotuko dugu Bizkai osoarentzat, lurralde barruko elkartasuna oinarri hartuz, eta guztiontzako ur-kalitate eta zerbitzu berdinak emanaz.
- › Bizkaiko Hondakinen Partzuergoa bultzatuko dugu, zertarako eta hondakinak modu integralean eta solidarioan bildu eta tratatuko direla bermatzeko.



## LEHEN SEKTOREA ETA LANDA-GARAPENA

- › Jakinarazi egingo dugu lehen sektorea estrategikoa dela, zerbitzu horrek kalitateko elikagaiak hornitzen dituelako, landa-inguruneari eusten laguntzen duelako, eta paisaia eta lurraldea kudeatzen mantentzen duelako. Baserria eta haren andre-gizonak giltzarri dira biodibertsitateari eusteko.
- › Sustatu egingo dugu azpisektorerik ahulenei laguntza ematea, zertarako eta haietan belaunaldien arteko txandakatzea eta Bizkaian behar besteko kalitateko elikagai hornituko dela bermatzeko.



- › *Gaztenek* programa, belaunaldien arteko txandakaztea bultzatu eta laguntzekoa; neurriak indartuko dira ekintzailetzarako, finantza-laguntzarako eta bitartekaritzarako lurrak eskuratu ahal izateko; kontuan hartu behar da garapenak ikuspegi ekonomikotik errentagarria den jarduera izan behar duela, baldin eta jarduera hori erakargarria izango bada sektorea gaztetzeari behar duen gizarte batentzat.
- › Baterako lan handiagoa egingo dugu sektoreko elkarrekin eta sektoreko profesionalekin.
- › Administrazioarekiko harremanak errazten jarraituko dugu; burokrazia murriztuko dugu, eta sektorearen esku jarriko ditugu informazio-teknologiak eta komunikazio egokiak.
- › Espezie eta arraza autoktonoak bultzatzen jarraituko dugu haiek Bizkaian bizirik iraun dezaten.
- › Zallako soto esperimentalaren bidez ezagutza sortuko dugu; ezagutza horren oinarri dira esperimentera eta berrikuntza; horrela, hobekuntzak jakinarazi ahal izango zaizkie *Bizkaiko Txakolina* eta *Euskal Sagardea* egiten dituztenei, bai aurreratzeko, bai egunean baino egunean hobekuntza izateko eta merkaturatu lehiakorragoak izateko.
- › Eusko Jaurlaritzarekin batera egingo dugu lan, zertarako eta nekazaritzako eta abeltzaintzako gure ustiatzeetan ekoizten diren produktu guztiak merkaturatzen laguntzeko.
- › Lokarriak estutuko ditugu landa-aldearen eta hirialdearen artean; horren helburua izango da lurraldearen kohesioa eta oreka lortzea lurraldeko biztanle guztien bizi-kalitatearekin zerikusia duten alderdi guztietan; horrela, landa-aldea erakargarria izango da bizi izateko, eta landa-inguruneak biztanleak izango ditu eta bizia izango da, aldi berean, gauza izango dela biodibertsitatea eta paisaia eskaintzeko gizarte osoaren gozamenarako.
- › Neurriak jarriko ditugu abian, zertarako eta banda zabala Bizkaiko landa-ingurunean bizi diren guztiak eskura izan dezaten.
- › Laguntza emango diogu nekazarien, abeltzainen eta basogintzan lan egiten dutenen prestakuntzari, haiek erabili ahal izan ditzaten administrazioak gizarte osoaren eskura jartzen dituen baliabide digitalak.
- › Mendien Foru Araua eguneratuko dugu.
- › Laguntza emango dugu basogintza errentagarria, ingurumenzalea eta gizartearen jasagarria dena mantentzeko, baldin eta errentagarritasunaren eta biodibertsitatearen mantentzearen arteko oreka bilatzen badu, eta baterako lanean jarraituko dugu basogintzarekin eta, zehatz-mehatz, Bizkaiko Basogintza Elkarrekin, bai mendi publikoa, bai jabetza pribatuko mendia egoki kudeatzeko.
- › Batera egingo dugu lan ehizako eta arrantzako federazioekin, eta Bizkaiko ehizarekin eta arrantzarekin zerikusia duten agenteekin; oreka bilatuko da ehizako eta arrantzako jardueren eta lehen sektore profesional garrantzitsuak eta biztanleek, oro har, ingurunea okupatzearen artean.

## › OGASUNA ETA FINANTZAK

Euskal foru-aldundien lehenengo osagai bereizlea haiek zergak arautzeko eta biltzeko duten gaitasuna da, eta bereizgarri hori estatuko diputazio probintzialei begira da, bai eta Europar Batasuneko gainerrako erregioei begira ere. Bizkaiko Ogasuna Bizkaiko Foru Aldundiaren eta berak ematen duen zerbitzu publikoaren zutarrietako bat da. Baldin eta ogasun indartsurik ez bagenu, ezin izango genuke ezer egin. Ogasuna da, gainera, Ekonomia Ituna darabilen eta egia bihurtzen duen tresna; Ekonomia Ituna autogobernuaren funtsa da, bai eta euskal lurraldeentzako alde bakarreko arrisku-sistema ere.

Ogasunak ondo funtzionatzen du, egunean-egunean, minutuz minutu, zergak zuzen biltzen ditu, arauak ematen ditu hemengo pertsonak eta enpresak buruan dituela, gogoan du Europar Batasunaren barruan gaudela, urtean baino urtean zerbitzu erosoago eta errazagoa eskaintzen die herritarrei, geroago eta errukigabeagoa da iruzurraren aurkako borrokan, Bizkaiko gizartea engainatu eta geldiarazten dutenen aurka jarduten du, eta aurrekontuak gertatzen ditu lurraldeko beharrezan eta ahalbideen arabera; bada, hori guztia halaxe da eta Bizkaiko Foru Aldundia horregatik harro dago, eta bada bermea ere bai herritar guztien gaurko egunetarako eta etorkizunerako. Bizkaiko Ogasunak funtzionatzen jarraituko du, eta aurrerapauso bat emango du pertsonen eta enpresei ematen dizkien zerbitzuak hobetzeko: horixe da gure konpromisoa datozen urteetarako, lehenetsunak ondo zehatzen ditugula:

### PFEZREN AITORPEN GUZTIAK EGITEA

EAJ-PNVk hauxe azaltzen du: eredu berria ezarriko dugu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kudeaketa integrala egiteko 2020. urteko errentaren aitorpenetik aurrera, alegia, 2021eko lehenengo seihilekoan aurkeztu behar dena. Gaur egun aitorpena egiteko dauden bide guztien ordez, sistema bakarra jarriko da, eta haren bidez Bizkaiko Foru Ogasunak Bizkaiko pertsona guztien aitorpena egingo du unean-unean dituen datuen arabera, eta informazioa osatu beharko dute nortzuek eta Ogasunak ez dituen datuen bat erantsi behar dutenek. Hori guztia aplikazio informatiko baten bidez egingo da Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan; horrela, Bizkaiko Foru Ogasuna gure inguruko lehenengo tributu-administrazioa izango da zergadun guztien errenta-aitorpena egingo duena; aitorpen hori Foru Aldundiaren web orriaren bitartez edo herritarren gailu mugikorren bidez egingo da.

### HERRITARRAREKIKO HARREMANAK HOBETU ETA SINPLIFIKATZEA

Foru Ogasuna kudeatzeari dagokionez, EAJ-PNVk oraindik ere baditu funtsezko helburu bi: lehenengoa, zergadunen tributu-betebeharrak sinplifikatzea, ahaleginak eginez zergadunek ahalik errazten bete ditzaten euren betebeharrak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eskaintzen dituzten baliabideak aprobetxatuz, eta, bigarrena, iruzur fiskalaren aurkako borroka, zertarako eta gure ongizate-estatuari eusteko betebeharra inork bete barik utz ez dezan.

### BORROKA BURUARGI ETA OSOA IRUZUR FISKALAREN AURKA

#### BATUZ PROIEKTUA

Iruzur fiskalaren aurkako borrokan, EAJ-PNVren ustez, hauxe da garaia beste kontrol-neurri batzuk ezartzeko, betiere ekonomia-jarduerak egiten dituztenek (pertsona fisikoek eta enpresek) aitor ditzaten euren jarduerak egitean lortzen dituzten diru-sarrera guztiak. Gure proposamena proiektu integral bat da, *Batuz* izenekoa; proiektu honek bide emango du, alde batetik, ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadun guztiek (multinazionalen hasi eta autonomoenganaino helduta) fakturazioaren kontrolerako software homologatu bat erabil dezaten, zeinak galaraziko baitu salmenten erregistroak ez sartzea, eta, bestetik, zergadunek tributu-administrazioari aldian-aldian (egunero, hilero edo hiru hilabetero, tamainaren arabera) eta modu elektronikoan bidal diezazkieten euren diru-sarrera eta gastu guztiak; horrela antzeko kontrol-maila egongo da alokairupeko langileen kontrolarekin alderatuta. Datu horiekin, Foru Ogasunak zehatz-mehatz kalkulatu ahal izango ditu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zerga-oinarriak, Sozietateen gaineko Zergakoak eta Balio Erantsiaren gainekoa Zergakoak, eta aitorpen horiek egin ahal izango ditu, zerbitzua zein hurbiltasuna enpresentzat eta autonomoentzat hobetuz.

### LANGILE ETA ESKUARTE GEHIAGO, IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO

EAJ-PNVk hauxe azaltzen du: Bizkaiko Foru Ogasunaren egitura aldatuko dugu; horren helburua izango da estatuko eta munduko beste administrazioekin egiten diren trukeetatik datorren informazioa tratatu eta erabiltzeko dauden beharrezan arabera moldatzea, bai eta beste organismo batzuetatik, iruzur fiskalaren aurkako borroka jarduneko antolaketa-tresnarik egokienak izango dituzte Ogasuna

garatzeko, eta beroni giza baliabideak eta baliabide jasotako informazio-hornidurak tratatu eta erabiltzeko dauden beharrezkoen arabera moldatzea ere; horrela, iruzur fiskalaren aurkako borrokako jardunek antolaketa-tresnarik egokienak izango dituzte Ogasuna garatzeko, eta beroni giza baliabideak eta baliabide teknologikoak emango zaizkio, haren jarduna ahalik eta eraginkorra izan dadin nazioarte mailan, non informazio-trukeak asko ugaritu diren.

## BGAEEI ETA FINANTZAKETARI BULTZADA EMATEA

EAJ-PNVren ustez, beharrezkoa da gaur egun dauden tresnak hobetzea edo tresna berriak sartzea gizarte-aurreikuspen osagarria orokortzea enpresaren eremuan. Gure proposamena da enpresa-aurreikuspeneko sistema eraikitzea, Gizarte Segurantzarenarekin osagarria dena, osagarri berba nabarmenduz; horren helburua izango da bizkaitar guztiei bizi-maila egokia bermatzea behin erretirora heldu eta gero. Gure ustez, giltzarri da agente sozial eta ekonomiko guztiak inplikatzeko, enplegu-guko BGAEak orokortzeko; horretarako, honelako neurriak egokitzen ditugu:

- › Ogasunak tratamendu erakargarria ezarri beharko du, bai enpresen eta langileen ekarpenetarako, bai erretiroa behin gertatu eta gero errenta gisa hartzen diren prestazioetarako.
- › Tresna gehiago garatu beharra dago, zertarako eta langileek enpresen kapitalean izan behar duten partaidetza dinamizatzeke, zergatik eta, haiek jabetzan eta kudeaketan inplikatzeko badira, bermatzen baita erabakiguneez Bizkaian iraungo dutela, eta enpresen jarduerak produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzerako joko duela; eta horrek ekonomia-jardueraren eta ongizatearen hazkunde nabaria ekarriko du.
- › Lankidetzako publiko-pribatu handiagoa izan behar dugu, enpresa-proiektuak garatu eta finantzatzeko; horri begira, Europar Batasuneko funtsekin hasitako dinamikarekin jarraituko dugu, zertarako eta berrikuntza, ekonomia-jardueraren finantzaketa eta produkzio-kapitalizazioa bultzatzeko; arau-ingurune egonkor, seguru, fidagarri eta erakargarria ezarriko dugu, zertarako eta enpresen proiektuek euren burua garatzeko behar dituzten finantzaketa-bideak izan ditzaten, eta horretan herritarrak ere inplikatu ditugu, beraiei erabakimen handiagoa emanez, euren aurrezkiak zertan erabiliko dituzten zehazteko.

- › Neurriak aztertu behar dira, herritarrei bermatzeko euren ondarea eduki ahal izango dutela erretiro-garaietan, zelan eta alderantzizko hipoteka bermatuen bidez edo antzeko beste batzuen bidez diru-sarrera egonkorra lor ditzaten; diru-sarrerok osatuko dituzte sistema publikoetatik eta gizarte-aurreikuspeneko osagarrietatik datozenak, eta herritarrei bermatuko diete euren erosteko ahalmena eta bizi-kalitatea handiagoak izatea.

## FISKALITATEA EKONOMIA DIGITALERAKO

EAJ-PNVk defendatzen du beharrezko tresnak ezarri behar direla Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga berriak aplikatzeko, noiz eta ELGAK (Ekonomia Lankidetzako eta Garapenerako Antolakundeak) haiek aplikatzea erabakitzen duenean; horrela, arlo digitalean diharduten enpresen salmenta eta irabaziaz zergapetuko dira, non eta jardueraren sortzen den lurraldean, eta horrek bateragarri izan behar du Bizkaian ekonomia digitala garatzeko.

## AURREKONTUA GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALAREN BULTZAGARRI BIHURTZEA

Aurrekontu publikoa erabiliko dugu ekonomia eta gizarte garatzeko bizkorgarri gisa. Aurrekontu horrek behar besteko laguntza emango die Bizkaian halakoa behar duten pertsonen (inork ezin du gelditu bide-bazterean), eta ez da ahaztuko ekonomia-jardueraren bultzatzea, jardueraren bidera dezan gure lurraldeak behar duen kalitateko enplegua. Azken batean, aurrekontu hori erabiliko dugu aberastasuna birbanatzeko elementu gisa, Bizkaia lurralde erakargarria izan dadin, bai pertsonentzat, bai produkzio-ehunerako. Aurrekontu publiko horrek jasangarria izan behar du denboran zehar, ez du erabili behar unean-unean dituen baliabideak baino gehiago, eta ez du sortu behar itxaropen faltsurik, ez eta bete ezinekoak diren promesak egin ere. Aurrekontu horrek bete behar ditu Europako instituzioek egonkortasunerako eta defiziterako ematen dituzten irizpideak. Azken batean, aurrekontuak zurrunda izan behar du.

## ERABAKITZEN DEN LEKUAN EGON BEHAR DA

EAJ-PNVk defendatzen du bermatu behar dela euskal instituzioak egongo direla nazioarteko foroetan, horietan haien eskumenak ukitzen direnean finantza- eta tributu-gaietan; bermatu behar da euskal instituzioek benetan parte hartuko dutela Estatuaren jarrerak harterakoan Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bidez, berau baita aldebiko gorengo organoa administrazio zentralaren eta euskal instituzioen arteko harremanetan. Ekonomia Itunaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzeko, behar diren neurriak bideratu behar dira, partaidetza hori gerta dadin lantaldeetan, zeinetan nazioarteko eta Europar Batasuneko etorkizuneko fiskalitatearen oinarriak ezartzen ari diren: ELGaren taldeak, Europar Batasunaren Kontseiluaren taldeak eta Kontseiluaren taldeak.



## › BIZKAI DIGITALA, ABANGOARDIAKO ESTRATEGIA ZERBITZU PUBLIKOETAN

Transformazio digitalaren garai berrian gaude sartuta buru-belarri; garai horretan, Google, Amazon edota antzeko enpresa handiek kontsumitzaileei ematen dieten esperientziak herritarren itxaropenak handitu egin ditu, bai berehalakotasunari buruz, bai zerbitzuen pertsonalizazioari buruz. Horregatik, administrazio publikoek aurre egin behar diote egunean baino egunean handiagoa den presioari, antzeko esperientziak eskaini behar zaizkiolako herritarri, zeinak erreferentziako beste enpresa batzuekin baitihardu modu errazean, edozein egunetan eta edozein ordutan, eta erantzuna eman behar zaizkie haren beharrezan klik bakar batez.

Herritarra hiperkonektatuta dago eta mugikorra da, oso informatuta dago, eragingarria da eta asko eskatzen du, administrazio publikoekin harremanak izateko beste modu batzuk galdatzen ditu, eta gaur egun dauden zerbitzuen kalitatea hobea izango dela itxaroten du; zerbitzu berriak abian jar daitezela eskatzen du, zerbitzuok gehien-gehienetan teknologia berriak ezartzearekin daude lotuta, eta, azkenean, baliabide publikoen erabileran eraginkortasuna eta efizientzia etengabe hobetzea galdatzen du.


Kanal digitalak eta herritarrekin harremanetan jartzeko guneak gehitzen ari dira (weba, eskukoak, posta elektronikoa, gailu adimentsuak, sare sozialak...), eta ge-

hitze horrek entzuteko antena izan behar du erakunde publikoentzat, zertarako eta eurok zerbitzatzen dituztenak hobetu ezagutu eta ulertzeko, bai eta horren bidez herritarrek administrazioarekin harremanak izaterakoan benetan dituzten beharrezan erantzuteko zerbitzuak definitze aldera. Hala ere, harremanetarako gune hauek ugaritzean, herritarrek egunean baino egunean esperientzia pertsonalizatuagoa eta jarraituagoa itxaroten dute, antena edo kanal horien bidez egina.

Horregatik, koska ez dago egoitza elektronikorik onena izatean, ez eta sinadura-ziurtagiririk onartuena izatean ere, ezpada esperientzia asebetegarriagoan dago koska, guk eskaini nahi ditugun zerbitzuetatik edozeinetan.

Konpromisoa dugu zertarako eta administrazioak, herritarrek eta enpresek osatzen dugun ekosistemaren egunerokoa errazago egiteko; transformazio digitalaren aitzindari eta bultzatzaile izango gara, eta behar den azpiegitura sortuko dugu ekosistemaren beraren erraztaile bihurtzeko geure burua, Bizkaian aberastasun eta garapen handiagoa sortzeko.

Berrikuntza teknologikorako laborategia izan nahi dugu, zeina izango baita gure lurraldeko sektore publikoko, sektore pribatuko profesionalen eta eremu akademiko eta teknologikoko espezialisten arteko topagunea; horren helburua izango da elkarrekin lan egitea GOVTECH



(*Government Technology*) prototipo teknologiko eta berritzaileak egitean, prototipo horiek erantzuna eman diezaieten gizartearen arazoei, bai erdigunean pertsona jarriz, bai horrela balio erantsi handiagoko zerbitzuak eta negozio-aukerak sortuz startupentzat eta esparru hone-tako ekintzaileentzat.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko GOVTECHen korporazio traktorea izan nahi du, gure administrazioen eta gure lurraldearen transformazio digitala ekerrarazten duena. Transformazio digital hori zazpi konpromisotan laburbil dezakegu:

- › Zerbitzu digital aurreratuak eskainiko ditugu, herritarra estrategiaren erdigunean dagoelarik (irudiak eta hotsa ezagutzea, sensorizazioa, geolokalizazioa...).
- › Gizatalde bat edukitzea, errealitate berriaren arabera moldatua.
- › Transformazio digitala zeharkakoa izango da, eta aurreko lerroalde guztietan garatutako jardun-eremu guztietan egingo da.
- › Talde bat izango dugu, gauza izango dena eragiteko eta herritarrekin lan egiteko, betiere asmo publikoak lortze aldera.
- › Lantikek, zerbitzu teknologikoen foru-sozietateak, proposamenak garatuko ditu joera teknologiko berriak oinarri harturik (*Cloud, Blockchain*, adimen artifiziala, zibersegurtasuna...).
- › Transformazio digitaleko zenbait proiektu pilotu azken erabiltzaileek probatuko dituzte.
- › Metrika digitalak erabiliko ditugu eta aurrekontua jarriko dugu proiekturako.

Horrenbesterekin, transformazio digitala bilatzen dugu jardun-eremu guztientzat; izan ere, transformazio horrek administrazioaren erantzukizuneko eta kudeaketako arlo guztiak ukitzen ditu; erronka hori izango da *Bizkaia Gov Tech Lab*-en helburu nagusia.

- › Espazio bat sortuko dugu geure lurraldeko sektore publikoko, sektore pribatuko profesionalen eta eremu akademiko eta teknologikoko espezialisten arteko topagunea izango dena; horren helburua izango da elkarrekin lan egitea GOVTECH prototipo teknologiko eta berritzaileak egitean, prototipo horiek balio publikoa sor dezaten eta zerbitzu hobeak eskain diezazkieten herritarrei eta haien benetako beharri-zanei. Bizkaiko Foru Aldundia GOVTECHen korporazio traktorea izango da.
- › Ekosistema jakin bati eragingo diogu; izan ere, hauek osatzen dute ekosistema hori: garatzaile teknologikoez, ikertzaileek, eta administrazio publikoen berrikuntza eta ekonomia digitala bultzatzen dituzten araudiek.
- › Adimen artifizialeko eta *Blokchainen* polo bat sortuko dugu Bizkaia dorreko ekintzaileen nazioarteko zentroan; polo hori Bizkaiko sektore traktore guztien beharriazekin egongo da lotuta.

